Jarraipen-txostena 2019



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# PLAN ESTRATÉGICO DE EMPLEO 2017-2020

# Aurkibidea


| ATALA | ORRIALDEA |
|---|---|
| 1) Sarrera. Testuingurua | 3 |
| 2) 2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoaren oinarrizko elementuak | 6 |
| 3) Erabilitako jarraipen-metodologia | 14 |
| 4) Aurrekontuen exekuzioaren eta 2019an izandako eraginaren ikuspegi globala | 18 |
| 5) 2019an garatutako ekintzen ikuspegi xehatua | 26 |
| 6) Genero- eta adin-ikuspegia | 114 |
| 7) Planaren testuinguruaren adierazle orokorren bilakaera | 117 |
| 8) Ondorioak eta balorazio orokorra | 120 |






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PLAN ESTRATÉGICO
DE **EMPLEO** 2017-2020

# 1.- Sarrera. Testuingurua

# Sarrera

Egungo egoera sozioekonomikoan, eta zenbait urtetan finantza-, industria- eta enplegu-krisialdia izan ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko adierazle makroekonomikoek susperraldi-fasea islatzen dute. Fase hori oraindik hasiberria da, eta, beraz, sendotu egin behar da, euskal gizarte osora hel dadin.

Ildo horretatik, nahitaezkoa da, besteak beste, egitura-arazoei ekitea, hala nola gazteen eta nagusien langabeziari. Erabakitasunez eta abileziaz ekiten ez bada, kolektibo horien egoera kroniko bihurtzeko arriskua handia da.

Beste alde batetik, gure gizartea inguru soziolaboral eta ekonomiko konplexu eta aldakorrean murgilduta dago. Horregatik, inguru hori ezagutu eta analisi zehatza egitea funtsezkoa da, politika publikoei buruzko erabakiak hartzeko, enpleguaren esparruan.

Testuinguru horretan eragin erabakigarria dute faktore hauek, esaterako: globalizazio-prozesuen ondorioz sistema ekonomikoetan gertatzen diren aldaketek; ekonomien bilakaera eta joerei buruzko ziurgabetasunak; enpresak kudeatzeko ereduen aldaketek; prozesu demografikoek; elektronika-, informazio- eta komunikazio-teknologien eraginak; ezagutzaren gizartearen hazkundeak; lan-prozesu eta enpleguen edukien aldaketek, eta gaitasun tekniko eta zeharkako gaitasun berrien beharrak. Faktore horien eragin handia dela eta, beharrezkoa da horiei ekin aurretik partekatutako eta diziplina anitzeko hausnarketa sakona egitea, aldi berean onartuz zaila dela etorkizuneko hipotesiak ezartzea, kasu askotan izaera oso disruptiboa izan dezaketen elementuen aurrean.

Adierazi den bezala, zalantzarik gabe, enplegua da herritarrak gehien kezkatzen dituen arloetako bat, gizartean duen eragin orokorra dela eta; hori horrela, lehen mailako lehentasun politikoa da.

Enplegu-politikak buruzagitza soziala eskatzen du, eta hori instituzioei dagokie, eta horrek garrantzi handia hartzen du, funtsezkoa baita gure herrialdearen lehiakortasun-estrategiaren zati gisa eta haren tresnak oinarrizkoak baitira hazkuntza ekonomiko jasangarria lortzeko eta gizarte-egonkortasun eta -kohesiora iristeko. Ikuspegi ekonomiko eta sozial hori estrategia-terminoetan adierazi behar da. Estrategia horrek zeregin hauek bete behar ditu: gizarte osoarentzako erreferentzia izan, ekoizpen-sistemaren garapenerako esparrurik egokiena ahalbidetu, eta gizarte- eta ekonomia-eragileen topaketa ahalbidetu, helburu eta gidalerro komunen inguruan, gizarte, lan, hezkuntza eta enpresaren arloetan ekiteko.

Helburu horrekin, Euskadiko Hirutariko Elkarrizketa Mahaian, gogoeta egiteko eta estrategia berri bat diseinatzeko beharra adostu zen 2015ean, aurrekoaren indarraldia amaitu eta enplegu-politika aktiboen transferentzia-prozesua burutu ondoren. Akordio horren ondorioz, 2016ko lehen seihilekoan asmo handiko lan-prozesu bat garatu zen, partaidetza zabaleko ideian oinarritua. Prozesu horri esker, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 (aurrerantzean, EEE 2020) zehaztu zen, honako hauen emaitza gisa: azpimarratu beharreko erronka eta alderdi erabakigarriei buruzko adostasun zabala; enplegu gehiago eta hobea sortzeko oinarri diren indarrak eta aukerak, eta aurre egin beharreko ahultasun eta mehatxuak. Hori guztia 2020. urtera begira.

2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoak EEE 2020an finkatutako jarraibideak maila operatiboan zehazten ditu, lan-tresna moduan baliagarriak izan daitezen enpleguaren sustapenari lotutako zerbitzuak eta programak gauzatzen dituzten Eusko Jaurlaritzako sailentzat, enpleguari buruz ikuspegi zabala izanda beti, lanari, hezkuntzari eta sustapen ekonomikoari lotutako alderdiak ere barne hartuta.

Azpimarratu behar da, halaber, Enplegu Plan hau 2017-2020ko Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren funtsezko osagaia dela. Programa horrek, suspertze ekonomikoaren dimentsioaren barruan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntza-, nazioartekotze-, industrializazio- eta inbertsio-eremuetan garatuko dituen oinarrizko ildo estrategikoak ere jasotzen ditu. Horrek guztiak enpleguari lotutako oinarrizko bi helburu ditu: Euskadin langabezia %10etik behera uztea 2020an, eta 2017-2020 aldian 20.000 gazteri enplegu-aukera ematea.

Beraz, nagusiki dokumentu betearazlea da, eta EEE 2020 lantzean garatutako formulazio estrategikoa zehazten du. Estrategia bezala, partaidetza-prozesu baten bidez landu da, hauen ekarpenei esker: gizarte-eragileak, beste instituzio batzuk (foru-aldundiak eta udalak), eta enpleguaren arloari bereziki lotutako beste eragile batzuk.

2017ko azaroaren 28an, Gobernu Kontseiluak 2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoa onartu zuen. Maila operatiboan, Planaren hedapen eta jarraipenari dagokionez, Plana zehazteko 2018., 2019. eta 2020. urteetarako Ekintza Plan Operatiboak definitzen dira. Plan horiek helburu espezifikoak eta aurrekontu zehatzak jasotzen dituzte, EAEko aurrekontuetan islatzen direnak, Planaren egituran zehaztutako eremu operatiboei eta jarduera-ildoei eutsiz. 2017. urtean, ez da egon Urteko Plan Operatibo espezifikorik.



PLAN ESTRATÉGICO
DE **EMPLEO** 2017-2020

# 2- 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren
Oinarrizko elementuak

# Helburu estrategikoak

2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programarekin, 2020 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta dokumentu honetan jasotako beste programa- eta diagnostiko-alderdi batzuekin koherentzian, **2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak helburu hauek proposatzen ditu:**

- Kalitatezko enplegua sustatzea, egoera ahulenean dauden pertsonei eta EAEko gazteei garrantzi berezia emanda.
- Laneratzea sustatzea, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez.
- Enplegurako prestakuntza sustatzea, bai langabeena bai landunena, Ezagutzaren Ekonomian trebakuntza enplegu-bermerik onena delako ustean oinarrituta.
- Osorik sustatzea ekintzailetza, gure gizartearentzat garrantzi estrategikoa duela nabarmenduta.
- Enplegua sortzeko gaitasuna baliatzea, turismoaren garapen iraunkorraren bidez, toki-merkataritza finkatuz, lehen sektorea modernizatuz, eta gizarte-ekonomia eta sektore publikoa garatuz.
- Etxebizitza eta ekipamendu publikoak birgaitzeari lotutako “Renove” programen aktibazioa, enpleguaren sorreran jarduera intentsiboak direlako errealitatea egiaztatuta.
- Enpresa-munduarekin lotuago egongo den hezkuntza-sistema batean sakontzen jarraitzea, bai lanbide-gaitasunak lortzeko, bai hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzea errazteko.
- Enpleguaren kalitatea hobetzeko behar diren neurriak eta baldintzak zaindu eta sortzea, EAEko langileek egonkortasuna, segurtasuna eta ibilbide profesional motibatzaileak eta atseginak garatzeko aukerak izan ditzaten, bai eta langileek kudeaketan, irabazietan eta jabetzan parte hartzeko aukera izan dezaten ere.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, enpleguaren euskal politikako tresna operatibo nagusia den heinean, egiten duen balio-ekarpena hobetzea, pertsonei eta enpresei zerbitzu integratuagoak eskaintzeko, bereziki “ibilbide” kontzeptua nabarmenduta.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak zeharka bultzatuko du emakumeak ekonomia- eta lan-jardueretan guztiz sartzea indartzen duten neurrien ezarpena.



Aurreko 2014-2016 Enplegu Planari dagokionez, berritasun nagusia da enpleguaren kalitatea eta Euskal Enplegu Sistema hobetzeari lotutako helburuak jasotzen direla, enplegua sortzeko dauden helburuen osagarri baitira (“enplegu gehiago”).

Helburu berri horiek euskal lan-merkatuaren testuinguru berriari erantzuten diote, etorkizunean enplegua sortzeko itxaropen onekin, baina baita arrisku bikoitzarekin ere:

- Enplegua sortzeak berekin ez ekartzea enpleguaren kalitatea berreskuratzea, batez ere behin-behinekotasunaren eta partzialtasunaren tasei dagokienez (ez baita halakorik nahi).
- Enpleguaren sorrera horrek ez ekartzea benetako aukerarik gaur egun enplegu-aukera gutxien duten pertsonentzat, nagusiki beren kualifikazio eskas edo zaharkituagatik, albo batera utzi gabe haien prestakuntzan gehiegizko trebetasuna jaso izanaren arazoa. Aukera horiek kolektibo horietara benetan irits daitezen lortzeko, alde batetik, pizgarri-eskaintzan eragin behar da, pertsona horiek egoera hobean egon daitezen langabe guztien multzoarekin alderatuta, eta, bestetik, Euskal Enplegu Sistemak gauza izan behar du gure ekoizpen-egituraren benetako premiei erantzuten dieten balio-zerbitzuak emateko pertsona horiei, esku-hartze pertsonalizatuaren logikatik abiatuta eta laneratzeko ibilbidearen kontzeptua oinarri hartuta.

# Helburu estrategikoen kuantifikazioa

Lehenago adierazitako helburu estrategikoak 2017-2020 aldian bete beharreko **3 helburu nagusitan zehazten dira:**

Egungo langabezia-tasa denboran zehar murriztea, 2020ko azken hiruhilekoan %10etik beherakoa izan dadin.

2017-2020 aldian zehar 58.000 (*) enplegu sustatzea, hauen bitartez: enpresa berriak sortzea, enplegu-aukera gutxiago dituztenak kontratatzeko pizgarriak abiaraztea eta birgaikuntzaren sustapen publikoa egitea, enplegu-sorrerarako sektore intentsibo gisa.

2017-2020 aldian zehar 20.000 gazteri lan-aukerak eskaintzea.

* Hasieran, 45.000 lanpostu aurreikusten ziren. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 enplegu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan egindako lan eskaintza publikoan gehitutako lanpostuei dagozkienak.

# Jarduera-ildoak

Bederatzi esparru operatiboak 35 jarduera-ildotan banatzen dira. Jarraian ikus daiteke ildo horien eskema, eta 7. atalean daude zehaztuta horien helburuak, ekimen lehenetsiak eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak. Genero-ikuspegia islatuta geratzen da gehitu den zeharkako jarduera-ildo espezifikoaren bidez.

| ESPARRU OPERATIBOAK | JARDUERA-ILDOAK |
|---|---|
| **1. ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA** | 1.1- ETEak finantzatzea eta zailtasunak dituzten ETEei arreta ematea |
| | 1.2- Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea |
| | 1.3- Landan eta kostaldean enplegua sustatzea |
| | 1.4- Gizarte-ekonomian enplegua sustatzea |
| | 1.5- Turismo-sektoreko enplegua sustatzea |
| | 1.6- Enplegua berariaz sustatzea egoera ahulagoan dauden eskualde eta udalerrietan |
| **2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | 2.1- Ekintzailetza berritzailea eta intraekintzailetza sustatzea |
| | 2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzea |
| **3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA** | 3.1- Hezkuntzatik lanera igarotzea |
| | 3.2- Lehen Aukera programa |
| | 3.3- Gazte ekintzaileei laguntzea |
| | 3.4- Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak |
| | 3.5- Eraberritzeko edo erreleborako programak |
| | 3.6- Gazteen itzulera sustatzea |
| | 3.7- Talentu gaztea |
| | 3.8- Heziketa duala |
| | 3.9- Gazteen enplegurako prestakuntza |

| ESPARRU OPERATIBOAK | JARDUERA-ILDOAK |
|---|---|
| **4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | 4.1- Langabeen prestakuntza |
| | 4.2- Prestakuntza, kontratatzeko konpromisoarekin |
| | 4.3- Lanean dauden pertsonentzako prestakuntza |
| **5. LANERATZEKO PIZGARRIAK** | 5.1- Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak |
| | 5.2- Egoera txarrean dauden edo enplegua izateko aukera gutxien duten kolektiboak laneratzeko pizgarriak |
| | 5.3- Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gaitzea eta laneratzea |
| | 5.4- Familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko laguntzak |
| **6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK** | 6.1- RENOVE Etxebizitza |
| | 6.2- RENOVE Azpiegiturak |
| **7. ENPLEGU PUBLIKOA** | 7.1- Administrazio publikoak eraberritzea |
| **8. ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA** | 8.1- Elkarrizketa soziala sustatzea eta bertan parte hartzea |
| | 8.2- Gizarte- eta enpresa-erantzukizuna sustatzea eta langileek enpresan duten partaidetza sustatzea |
| | 8.3- Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua |
| | 8.4- Kalitatezko enplegua, enplegu segurua |
| **9. EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBEKUNTZA** | 9.1- Lanbide eraberritu eta modernizatzea |
| | 9.2- Enplegu-arloko behaketa- eta prospekzio-lana hobetzea |
| | 9.3- Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea |
| **ZEHARKAKOA** | Emakumeen enplegagarritasuna hobetzea |

Oharra: Hasiera batean, 6. Esparru Operatiboa. Renove birgaitze-programak 3 jarduera-ildo zituen (6.1- Renove Etxebizitza; 6.2- Renove Ikastetxeak eta 6.3- Renove Osasuna). 2018an, erabaki zen “6.1- Renove Etxebizitza” ildoari eustea eta besteak ildo bakarrean biltzea: 6.2- Renove Azpiegiturak. Horrela, hainbat arlo eta azpiegituratan egiten ari diren birgaitze-proiektuak sartzen dira jarduera-ildo berri horretan (ikastetxeak, osasun-zentroak, industrialdeak eta enpresa-parkeak...).

# Baliabide ekonomikoak

**2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren aurrekontu-zuzkiduraren zenbatespena 1.175 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako**, esparru operatiboen arabera honela banatuta (*):

| | | |
|---|---|---|
| **1. esparru operatiboa** | **ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA** | **63 M €** |
| **2. esparru operatiboa** | **EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **86 M €** |
| **3. esparru operatiboa** | **GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA** | **99 M €** |
| **4. esparru operatiboa** | **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **282 M €** |
| **5. esparru operatiboa** | **LANERATZEKO PIZGARRIAK** | **298 M €** |
| **6. esparru operatiboa** | **RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK** | **347 M €** |

*(*) 7., 8. eta 9. esparru operatiboak (Enplegu publikoa, Enpleguaren kalitatea hobetzea eta Euskal Enplegu Sistema hobetzea) ez dira kontuan hartuko aurrekontuari dagokionez; izan ere, neurri handi batean 1. kapituluko aurrekontuarekin bat datoz, eta kapitulu hori ez da aintzat hartzen gainerako esparru operatiboetan.*

2017rako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatespena 288 milioi eurokoa da, EAEko 2017ko Aurrekontu Orokorretako 210. programan (Enplegu Plana) jasotako aurrekontu-partiden arabera; bertan, horien xehetasunak ikus daitezke (kontuan hartu behar da zifra horrek ez duela barne hartzen 2017. urterako 1,2 milioi euro gehigarriko aurrekontu-aldaketa, 2017ko ekaineko aurrekontu-eztabaidan onartutako zuzenketaren ondoriozkoa, koherentziari eutsi nahi izan zaiolako 2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programan zehaztutako zifrekin).

2018, 2019 eta 2020 ekitaldietarako aurrekontuen aurreikuspenei dagokienez, batez besteko % 1,2ko hazkundea zenbatetsi da, betiere ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen onarpenaren menpe. Mobilizatutako baliabide pribatuen kuantifikazioa Planaren jarraipen- eta ebaluazio-dinamiken atal gisa jasoko da (ikus “Planaren Gobernantza Eredua - Kontuak ematea” atala).

# Inpaktuaren emaitzak

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak inpaktu hauek aurreikusten ditu euskal lan-merkatuan:

- Enplegua sortzea.
- Lehendik dagoen enpleguari eustea, bereziki zailtasunak dituzten sektoreen eta enpresen kasuan.
- Enplegagarritasuna areagotzea.
- Enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Euskal Enplegu Sistema hobetzea, bereziki Lanbidek eskainitako zerbitzuak.

Jarraian ageri dira Planak 2017-2020 aldirako aurreikusten dituen inpaktu kuantitatibo nagusiak.

**Laguntzei esker sortutako 58.000 lanpostu (*)**

**12.000** lanpostu, enpresa berriak sortzeagatik.

**15.000** lanpostu, etxebizitzak eta ekipamendu publikoa birgaitzeko lanei lotuta.

**18.000** pertsona, kontratuak egiteko pizgarrien bidez kontratatuak.

**13.000** lanpostu Lan Eskaintza Publikoetan (txanda irekia).

**Laguntza jaso duten**

**5.000** mikroenpresa eta autonomo berri.

**1.000** enpresa berritzaile berri.

**20.000 gazte**
**lan-aukera batekin**

**3.000** gazte kontratatuta, haien ikasketekin bat datozen lanpostuetan, lehen lan-aukera emanda (Lehen Aukera).

**5.000** gazte hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-esperientzia praktikoarekin.

**3.500** ekintzaile gazte berri.

**2.500** gazte tokiko eta eskualdeko planen bidez kontratatuak.

**3.200** gazte euskal administrazio publikoko pertsona erretiratuen lanpostuak ordezkatuz.

**400** gazte, sektore pribatuko errelebo-kontratuen onuradunak.

Atzerrian prestakuntza eta esperientzia eskuratu dituzten **200** gazterentzako itzultzeko laguntzak.

**1.800** gazte, enpresa-esperientzia praktikoa eskuratzeko beken onuradunak.

**400** gazte, aukera-esparru zehatzetan sartzeko eta garapen profesionala izateko laguntza-programen onuradunak.

* Hasieran, 45.000 lanpostu aurreikusten ziren. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 enplegu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan egindako lan eskaintza publikoan gehitutako lanpostuei dagozkienak.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PLAN ESTRATÉGICO
DE **EMPLEO** 2017-2020

# 3- Erabilitako jarraipen-metodologia

# Erabilitako metodologia

Egindako lanen jarraipena eta kontrola egiteko, informazio-eskaera zuzena egiten zaie kasuan kasuko ekimena abiarazteaz arduratu diren **Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzei, Sailei eta/edo Erakundeei.** Eskaera horien helburua **aurreikusitako jarduera-ildoen garapen-maila** kontrastatzea izan da, egindako jarduera nagusiak, inpaktuaren emaitzak eta aurrekontuen exekuzioa identifikatuz.

Arestian aipatu dugun moduan, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoan 2018, 2019 eta 2020rako Urteko Ekintza Plan Operatiboak definitzen dira, baina ez dago Urteko Plan Operatiborik 2017. urterako. Horren ondorioz, 2017. urtean, jarduera-ildoek ez zuten helburu kuantitatibo espezifikorik izan, eta horregatik, jarraipenaren oinarria 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburu orokorrak lortzen laguntzea izan zen. 2018ko Urteko Plan Operatiboa lehenengo plan operatiboa izan zen, urteko helburu espezifiko batzuk zituen, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egin zen. **2019ko Urteko Plan Operatiboa bigarren plan operatiboa izan da, dagozkion urteko helburu batzuk izan ditu, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egin da.**

**2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren aurrerapen-mailaren ikuspegi orokorra izateko, aurrekontuen exekuzioaren kuantifikazio metatua eta 2017., 2018. eta 2019. urteetan lortutako emaitza nagusiak ere sartu dira. Informazio horrekin batera, 2020ko emaitzen zenbatespena ageri da, helburu orokorrak betetzearen aurreikuspen bat izateko.**

Gainera, jarduera-ildoen garapen-mailaren analisia egin da, genero-ikuspegitik eta adin-ikuspegitik, eta horien emaitzak 6. atalean sartu dira. Genero- eta adin-ikuspegia.

Hurrengo orrialdean zehaztu dira zein diren ekintza-planak jasotako ekintzen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza, Sail eta/edo Arloetako arduradunak.

# Jarduera-ildo bakoitzaren arduradun diren Sail eta Zuzendaritza arduradunak

| JARDUERA-ILDOAK | SAIL ARDURADUNA | ZUZENDARITZA ARDURADUNA |
|---|---|---|
| 1.1- ETEak finantzatzea eta zailtasunak dituzten ETEei arreta ematea | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | Industria-garapena |
| | Ekonomia eta Ogasuna | Finantza Politika eta Erakundeen Baliabideak |
| 1.2- Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | Merkataritza |
| 1.3- Landan eta kostaldean enplegua sustatzea | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | Landa Inguruaren eta Itsasertzaren Garapena eta Europako Politikak |
| 1.4- Gizarte-ekonomian enplegua sustatzea | Lana eta Justizia | Gizarte-ekonomia |
| 1.5- Turismo-sektoreko enplegua sustatzea | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | Turismoa |
| 1.6- Enplegua berariaz sustatzea egoera ahulagoan dauden eskualde eta udalerrietan | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | Industria-garapena |
| 2.1- Ekintzailetza berritzailea eta intraekintzailetza sustatzea | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak - SPRI | Industria-garapena |
| | | Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartea - SPRI |
| 2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.1- Hezkuntzatik lanera igarotzea | Hezkuntza | Lanbide Heziketa |
| | | Unibertsitateak |
| 3.2- Lehen Aukera programa | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.3- Gazte ekintzaileei laguntzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.4- Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.5- Eraberritzeko edo erreleborako programak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.6- Gazteen itzulera sustatzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Gazteria |
| 3.7- Talentu gaztea | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | Nazioartekotzea |
| | Beste Sail batzuk | Talentu gaztearen ekimenekin lotutako beste Zuzendaritza batzuk |
| 3.8- Heziketa duala | Hezkuntza | Lanbide Heziketa |
| | | Unibertsitateak |
| 3.9- Gazteen enplegurako prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |



| JARDUERA-ILDOAK | SAIL ARDURADUNA | ZUZENDARITZA ARDURADUNA |
|---|---|---|
| 4.1- Langabeen prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |
| 4.2- Prestakuntza, kontratatzeko konpromisoarekin | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |
| 4.3- Lanean dauden pertsonentzako prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |
| 5.1- Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 5.2- Egoera txarrean dauden edo enplegua izateko aukera gutxien duten kolektiboak laneratzeko pizgarriak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 5.3- Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gaitzea eta laneratzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 5.4- Familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko laguntzak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Familia |
| | | Lanbide - Enplegua |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza | Etxebizitza |
| 6.2- RENOVE Azpiegiturak | Hezkuntza | Baliabide Materialak eta Azpiegiturak |
| | Osasuna | Osakidetza |
| | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | Industria-garapena |
| 7.1- Administrazio publikoak eraberritzea | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | Funtzio publikoa |
| | Beste Sail batzuk | Lan Eskaintza Publikoak kudeatzeko gaitasuna duten beste Zuzendaritza batzuk |
| 8.1- Elkarrizketa soziala sustatzea eta bertan parte hartzea | Lana eta Justizia | Lana eta Gizarte Segurantza |
| 8.2- Gizarte- eta enpresa-erantzukizuna sustatzea eta langileek enpresan duten partaidetza sustatzea | Lana eta Justizia | Gizarte-ekonomia |
| 8.3- Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua | Lana eta Justizia | Gizarte-ekonomia |
| 8.4- Kalitatezko enplegua, enplegu segurua | Lana eta Justizia | Lana eta Gizarte Segurantza: |
| 9.1- Lanbide eraberritu eta modernizatzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide |
| 9.2- Enplegu-arloko behaketa- eta prospekzio-lana hobetzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide |
| | Beste Sail batzuk | Beste Zuzendaritza batzuk |
| 9.3- Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide |
| | Beste Sail batzuk | Beste Zuzendaritza batzuk |



PLAN ESTRATÉGICO
DE EMPLEO 2017-2020

# 4- Aurrekontuen exekuzioaren eta 2019an izandako inpaktuaren ikuspegi globala

# Helburu estrategikoak lortzeko izan den aurrerapen-maila

| 2017-2020 HELBURU ESTRATEGIKOEN AURREIKUSITAKO KUANTIFIKAZIOA | HELBURUEN BENETAKO KUANTIFIKAZIO METATUA 2019/12/31N | 2017-2020AN LORTU BEHARREKO HELBURU ESTRATEGIKOEN AURRERAPEN-MAILA |
|---|---|---|
| **%10etik beherako** langabezia-tasa 2020ko azken hiruhilekoan | Langabezia-tasa: %9,3 (2019ko IV. hiruhilekoa Eustat) | **Langabezia-tasa ehuneko 3,3 puntu murrizten laguntzea, hasierako egoerarekiko (2016ko IV. hiruhilekoan, %12,6) eta 2020rako aurreikusitako helburua betetzea.** Joera horri eutsiko zaiola estimatuz, langabezia-tasaren aurreikusitako azken helburua gainditu egingo litzateke. |
| **58.000 enplegu** sustatzea 2017-2020 aldian (*) | 57.918 enplegu sustatu dira 2017, 2018 eta 2019an | **2017-2020 aldirako aurreikusitako enpleguen ia %100 sortzen laguntzea.** 2020an zehar antzeko urteko egoera bat estimatuz, horrek esan nahi luke enplegua sortzeko guztizko helburua baino gehiago lortuko litzatekela |
| 2017-2020 aldian zehar **20.000 gazteri** lan-aukerak eskaintzea | 27.808 gazteri lan-aukera bat eskaini zaie 2017, 2018 eta 2019an zehar | **2017-2020 aldirako aurreikusitako gazteen %139ri lan-aukera bat errazten laguntzea** 2020an zehar antzeko urteko egoera bat estimatuz, horrek esan nahi luke enplegua sortzeko guztizko helburuaren ia bikoitza lortzea |

* Hasieran, sustatutako 45.000 lanpostu aurreikusten ziren. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 enplegu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan egindako lan eskaintza publikoan gehitutako lanpostuei dagozkienak.



# Inpaktuaren emaitza orokorrak 2019an

Planean 2019rako aurreikusitako jarduera-ildoen garapen mailak **23.775 enplegu sustatzen eta 2.086 enpresa sortzen lagundu du.**

**Emaitza horiek eta 2017an eta 2018an lortutakoek (34.143 enplegu sustatuta eta 3.527 enpresa sortuta) 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako enplegu sustatuen (57.918) ia %100 lortu dela esan nahi dute, eta aurreikusitako enpresa berrien (5.613) %94**. 2020rako aurreikusitako emaitzen estimazio bat eginez, helburuak %100 baino gehiago beteko direla aurreikusten da, sustatuko enpleguari eta sortutako enpresa berriei dagokienez.

Helburuak betetzea aurrerapen-mailaren edo 2017-2020 eperako aurreikusitako aurreikusitako emaitzen guztizkoaren laguntzaren terminoetan planteatzen da, 2017-2020 Enplegu Planak guztizko inpaktuaren aurreikuspena egin zuelako, haren indarraldiko 4 urteetarako.

| 2017-2020 ALDIRAKO AURREIKUSITAKO INPAKTUAREN EMAITZAK | Inpaktu-adierazleak | Aurreikusitako inpaktua 2017-2020 | 2017ko emaitzak | 2018ko emaitzak | 2019ko emaitzak | 2017-2019ko emaitza metatuak | 2017-2020 aldiko helburu estrategikoak lortzeko 2017-2019 aldian izandako aurrerapen-maila | 2020ko emaitza estimatuak | 2017-2020ko emaitza metatu estimatuak | 2017-2020ko betetze-maila estimatua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **58.000 lanpostu sustatu (*)** | Enpresa berriak sortzeagatik lortutako lanpostu berrien kopurua | 12.000 | 3.713 | 3.904 | 3.936 | 11.553 | %96 | 3.221 | 14.774 | %123 |
| | Etxebizitzak eta ekipamendu publikoak birgaitzeko lanei lotutako lanpostuak | 15.000 | 3.214 | 3.754 | 6.251 | 13.219 | %88 | 3.451 | 16.670 | %111 |
| | Pizgarrien bidez kontratatuak eginez sortutako lanpostuak | 18.000 | 4.651 | 6.324 | 7.106 | 18.081 | %100 | 7.448 | 25.529 | %142 |
| | Lan Eskaintza Publikoetan (txanda irekia) sartutako lanpostuak | 13.000 | 4.221 | 4.362 | 6.482 | 15.065 | %116 | 3.800 | 18.865 | %145 |
| | **Sustatutako lanpostuen guztizko kopurua** | **58.000 (*)** | **15.799** | **18.344** | **23.775** | **57.918** | **%100** | **17.920** | **75.838** | **%131** |
| **Laguntza jaso duten 6.000 enpresa berri** | Mikroenpresa berrien eta autonomoen kopurua | 5.000 | 1.278 | 1.658 | 1.797 | 4.733 | %95 | 1.615 | 6.348 | %127 |
| | Enpresa berritzaile berrien kopurua | 1.000 | 279 | 312 | 289 | 880 | %88 | 288 | 1.168 | %117 |
| | **Lagundutako enpresa berrien guztizko kopurua** | **6.000** | **1.557** | **1.970** | **2.086** | **5.613** | **%94** | **1.903** | **7.516** | **%125** |

(*) Hasieran, sustatutako 45.000 lanpostu aurreikusten ziren. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 enplegu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan egindako lan-eskaintza publikoetan gehitutako lanpostuei dagozkienak.

# Enplegu gaztearen inpaktuaren emaitzak 2019an

Enplegu gaztearen ikuspegitik, **10.693 gaztek izan dute lan egiteko aukera 2019an zehar hainbat programaren bidez:** besteak beste, enpresetan eta toki-erakundeetan kontratuak izateko aukera, beren tituluekin zerikusia duten lanpostuetan; gazteen ekintzailetza; hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko lehen esperientzia; nazioartean esperientzia praktikoa lortzeko bekak; eta plantillak berritzea, lan-eskaintza publikoaren eta txanda-kontratuen bidez.

**Emaitza horiek eta 2017an eta 2018an lortutakoek (17.115 gazte) erakusten dutenez, 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuen %139 (27.808 gazte) bete da**. 2020rako aurreikusitako emaitzen estimazio bat eginez, 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuaren ia bikoitza beteko litzateke.

**2017-2020 ALDIRAKO ENPLEGU GAZTEAN AURREIKUSITA KO INPAKTUA**

**20.000 gazte lan-aukera batekin**

| Inpaktu-adierazleak | Aurreikusita ko inpaktua 2017-2020 | 2017ko emaitzak | 2018ko emaitzak | 2019ko emaitzak (*) | 2017-2019ko emaitza metatuak | 2017-2020 aldiko helburu estrategikoak lortzeko 2017-2019 aldian izandako aurrerapen-maila | 2020ko emaitza estimatuak | 2017-2020ko emaitza metatu estimatuak | 2017-2020ko betetze-maila estimatua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen Aukera programaren bidez kontratatutako gazteen kopurua | 3.000 | 498 | 309 | **616** | **1.423** | %47 | 600 | 2.023 | %67 |
| Hezkuntza-mundutik lan-mundura programan parte hartzen duten gazteen kopurua | 5.000 | 2.166 | 4.938 | **3.576** | **10.680** | %214 | 4.033 | 14.713 | %294 |
| Ekintzaile gazte berrien kopurua | 3.500 | 847 | 1.050 | **1.515** | **3.412** | %97 | 1.110 | 4.552 | %129 |
| Tokiko eta Eskualdeko Planen bidez kontratatutako gazteen kopurua | 2.500 | 834 | 1.088 | **1.033** | **2.955** | %118 | 1.000 | 3.955 | %158 |
| Lan Eskaintza Publikoetan sartutako gazteentzako lanpostuen kopurua | 3.200 | 1.868 | 2.045 | **3.133** | **7.046** | %220 | 1.800 | 8.846 | %276 |
| Txanda-kontratuen onuradunak diren gazteen kopurua | 400 | 31 | 47 | **65** | **143** | %36 | 106 | 249 | %62 |
| Gazteak itzultzeko programan parte hartzen duten gazteen kopurua | 200 | Hasiera 2018an | 6 | **12** | **18** | %9 | 50 | 68 | %34 |
| Prestakuntza- eta enplegu-beketan parte hartzen duten gazteen kopurua | 1.800 | 612 | 743 | **710** | **2.065** | %115 | 713 | 2.778 | %154 |
| Sektore espezifikoetako laguntza-programen onuradunak diren gazteen kopurua | 400 | Hasiera 2018an | 33 | **33** | **66** | %17 | 33 | 99 | %25 |
| **Lan-aukera bat duten gazteen guztizko kopurua** | **20.000** | **6.856** | **10.259** | **10.693** | **27.808** | **%139** | **9.445** | **37.253** | **%186** |



# 2019an egikaritutako baliabide ekonomikoak

Enplegu Planaren aurrekontuen exekuzioa **328 M €-koa** izan da 2019an; hau da, **2019rako aurreikusitako aurrekontuaren %107koa. 2017, 2018 eta 2019an exekutatututako baliabideak modu metatuan hartuta (902 M €), aurrekontuen exekuzioa 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako aurrekontuaren %77 izango litzateke**. Enpleguaren Urteko Plan Operatiboan 2020rako aurreikusitako baliabide ekonomikoak kontuan hartuta (355 M €), 2017-2020 Enplegu Planaren estimatutako exekuzio metatuak Plan osorako aurreikusitako baliabide ekonomikoak lortuko eta gaindituko lituzke.

**Esparru operatibo guztiek aurrekontuen exekuzio-maila handia islatzen dute 2019an.**

| ESPARRU OPERATIBOAK | 2017-2020 aldirako aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €) | 2017an exekutatutak o baliabide ekonomikoak (M €) | 2018an exekutatutak o baliabide ekonomikoak (M €) | 2019rako aurreikusitak o baliabide ekonomikoak (M €) | 2019an exekutatutak o baliabide ekonomikoak (M €) | 2019ko exekuzio-maila 2019ko aurreikuspenar ekiko (%) | 2017-2019 aldian exekutatutako baliabide ekonomiko metatuak | 2020rako aurreikusitak o baliabide ekonomikoak (M €) | 2017-2020 aldirako aurreikusitak o baliabide ekonomiko metatuak (M €) | 2017-2020 aldiko estimatutako exekuzio-maila metatua 2017-2020 aldiko aurreikuspena rekiko (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA** | 63 M € | 14 M € | 18 M € | 25 M € | **34 M €** | %137 | **66 M €** | 28 M € | 94 M € | %149 |
| **2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | 86 M € | 19 M € | 19 M € | 23 M € | **18 M €** | %80 | **56 M €** | 23 M € | 79 M € | %91 |
| **3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA** | 99 M € | 20 M € | 42 M € | 24 M € | **28 M €** | %119 | **90 M €** | 24 M € | 114 M € | %114 |
| **4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | 282 M € | 55 M € | 65 M € | 61 M € | **65 M €** | %106 | **185 M €** | 79 M € | 264 M € | %94 |
| **5. LANERATZEKO PIZGARRIAK** | 298 M € | 78 M € | 82 M € | 96 M € | **94 M €** | %98 | **254 M €** | 113 M € | 367 M € | %124 |
| **6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK** | 347 M € | 83 M € | 79 M € | 78 M € | **89 M €** | %115 | **251 M €** | 88 M € | 339 M € | %97 |
| **GUZTIRA** | **1.175 M € (*)** | **269 M €** | **305 M €** | **307 M €** | **328 M €** | **%107** | **902 M €** | **355 M €** | **1.257 M €** | **%107** |

(*) 2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontu-zuzkiduran ez da sartzen 2017. urterako 1,2 M €-ko aurrekontu-aldaketa, 2017ko ekaineko aurrekontuen eztabaidan onartutako zuzenketatik eratorria, 2017-2020ko Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programan zehaztutako zifrekin koherente izateko.

(**) Aipatu beharra dago 2019an exekutatutako baliabide ekonomikoen zifrak (328 M €) bere baitan dituela “210 – Enplegua” aurrekontu-txostenaren kodearekin erregistratuta ez dauden programei dagozkien 15,9 M €-ak, eta beraz, ez zirela sartu aurreikusitako 307 M €-ko aurrekontuaren zifran. Gehienbat, Eusko Jaurlaritzaren mendeko entitate edo erakunde publikoek kudeatutako programei dagozkie (Erasmus Bekak eta Ikasiker Bekak izan ezik). Programa hauek dira: Nazioartekotze Bekak eta Global Training Bekak (7,8 M €); Renove Industrialdeak (6,2 M €); eta Erasmus Bekak eta Ikasiker Bekak (1,9 M €).





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PLAN ESTRATÉGICO
DE **EMPLEO** 2017-2020

# 5- 2019an garatutako ekintzen ikuspegi xehatua

1. esparru operatiboa

# ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA

## 1.1- JARDUERA-ILDOA, ETEak FINANTZATZEA ETA ZAILTASUNAK DITUZTEN ETEei ARRETA EMATEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Lankidetza instituzionala eta lankidetza publiko-pribatua, enpresei, bere bideragarritasunari eragiten dien egoerak eta arazoak konpontzeko laguntza espezifikoa behar dutenean, **arreta, aholkularitza eta kudeaketa-zerbitzuak** emateko. | ▪ Lan-harremanen esparruan, laguntza-programen babesik ez duten jarduerak, enpresak berrabiarazteko inbertitzaileak bilatzea eta haiekin harremanetan jartzea, zerga-zorra atzeratzeko erraztasunak aztertzea, berfinantzatze-bideak, hartzekodunekin eta/edo hornitzaileekin akordioak egitea...<br>▪ Zailtasunak dituzten 5 enpresari konponbidea eta aholkularitza ematea, 389 lanposturi eusten lagunduz. Garapen-prozesuak, 2.904 lanposturi eragiten dieten beste 20 enpresa. |
| Bideratu Berria Programa, zailtasunak dituzten ETEei laguntzekoa, **industria- eta finantza-izaerako berregituratzeko eta berriro bultzatzeko neurrien exekuzioaren laguntzaren** bidez, krisian dauden enpresek berek egindako berregituratze-planetan sartuta daudenak, haien bideragarritasuna berrezartzeko, epe ertainean eta epe luzean. | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen, ezaugarriei eta programaren laguntzei eutsiz, aurreko deialdiarekin konparatuta.<br>▪ 6 enpresari 4,3 M €-ko dirulaguntzak eman zaizkie, 10,7 M €-ra arteko berregituratze-planen bidez. |
| ETEei inbertsiorako eta finantza-berregituratzeko laguntza ematea, Luzaro BEIrekin lotuta, **partaidetza-maileguak emanez,** alderdi hauetan laguntzeko: inbertsioak finantzatzea, berrikuntza teknologikoko proiektuak, kontsolidazio finantzarioa eta enpresa-hazkundeko proiektuekin lotutako aktibo zirkulatzailearen finantzatzea. | ▪ 2012an Luzaro EFCrekin sinatutako hitzarmena luzatzea, Finantza Lankidetzako Hitzarmeneko prezioen urteko egokitzea egitea 2019rako.<br>▪ Urte osoan zehar irekita jarraitu duen programarekin jarraitzea.<br>▪ 2020an Luzaro EFCrekin Finantza Lankidetzako Hitzarmen berri bat formalizatzeko aurreikuspena, 2019rako aurreikusitako ekintza positiboko irizpideak sartuz, Berdintasun Plana duten enpresei emandako maileguen finantza-baldintzak hobetuz. |
| ETEen zirkulatzailearen finantziazioari eta likidezia-beharrei laguntzea, **Elkargi Elkarren Bermerako Sozietatearekin egindako hitzarmenen** bidez, abalak emateko. | ▪ Elkargirekin sinatutako Oinarrizko Birfinkapenerako Hitzarmenak eta Osagarriak luzatzea. Zirkulatzailearen finantziazio-funts espezifikoa hitzarmen horietan integratuta geratzen da. Enpresek gehien eskatzen duten eta haietan inpaktu handiena duten ezaugarri horiek dituen laguntza-ildo bat dela egiaztatzea.<br>▪ 2019an Elkargirekin hitzarmen berri bat sinatzea, kaudimena indartzeko, Entitatearen Hornidura Teknikoen Funtsari zenbateko baten ekarpena eginez. Ekarpen horrek Elkargiren jarduerari eusten lagundu du, eta horrenbestez, euskal ETEen finantziazioa erraztu eta hobetu egin du.<br>▪ 2020an Luzaro EFCrekin Finantza Lankidetzako Hitzarmen berri bat formalizatzeko aurreikuspena, 2019rako aurreikusitako ekintza positiboko irizpideak sartuz, Berdintasun Plana duten enpresei emandako abalen finantza-baldintzak hobetuz. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enpresei arreta-, aholkularitza- eta kudeaketa-laguntzak ematea | ▪ 25 enpresa lagunduta<br>▪ Laguntza jaso duten enpresen bitartez bere horretan eutsi diren 3.293 lanpostu | ▪ Ez da aplikatzen |
| Dirulaguntzak ematea enpresak berregituratu eta berrabiarazteko | ▪ 6 enpresa lagunduta (Bideratu programa)<br>▪ Lagundutako enpresen bitartez (Bideratu programa) bere horretan eutsi zaie 644 lanposturi<br>▪ 4.300.000 €-ko zenbatekoan formalizatutako eragiketak (Bideratu programa) | ▪ Ez da aplikatzen |
| 100 enpresari finantzarioki indartzeko eta hazkuntza-proiektuak garatzeko erraztasunak ematea, beren lanpostuei eusten lagunduz | ▪ 115 enpresa lagunduta<br>▪ Bere horretan eutsi zaie 4.100 lanposturi, lagundutako enpresetan<br>▪ 26.553.997 €-ko zenbatekoan formalizatutako eragiketak | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%15 gainetik) |
| 800 enpresaren finantza-egitura indartzea, aktibo finkoak eta zirkulatzailea, esportazioaren eta berrikuntzaren inbertsioa eta finantziazioa eskuratzeko, ETEei emandako abal finantzarioaren eragiketetan laguntza emanez, enpresetako lanpostuei eusten laguntzeko | ▪ 675 enpresa lagunduta<br>▪ Bere horretan eutsi zaie 14.435 lanposturi, lagundutako enpresetan<br>▪ 118.251.273 €-ko zenbatekoan formalizatutako eragiketak | ▪ Aurreikusitako enpresen %84 |

## 1.2 JARDUERA-ILDOA, TOKIKO MERKATARITZAN ENPLEGUA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
| --- | --- |
| **Merkataritza-saltokiak modernizatzeko** (MSM) programa, merkataritza-saltokietako instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko eta modernizatzeko. | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Programaren laguntzen ezaugarriei eta zenbatekoei eustea, aurreko deialdiarekin konparatuta.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, eskaeren balorazioa 3 puntutan handituz, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plan bat izateagatik, edo Emakunderen erakunde kolaboratzailea izateagatik, edo Lana eta Familia Bateragarri egiteko Plan bat izateagatik. |
| Ecommerce Programa, denda txikietan **merkataritza elektronikoa** ezartzea eta garatzea sustatzen duena. | ▪ Teknologia berriak eta merkataritza-saltoki bakoitzaren garapen-mailan oinarritutako online salmentak bultzatzeko banaketa-kanal berriak sartzeko aholkularitza- eta laguntza-ekintzak garatzea (ezartzea, optimizatzea, sare sozialetan saltzea eta kanpoko webguneen bitartez saltzea). |
| **Banaketaren esparruan kualifikazioa** indartzea, merkataritza-banaketaren kudeaketako teknikarien prestakuntzarako programen bitartez. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Kualifikazio-ekintzak, 2 hilabeteko iraupena duen merkataritza-banaketaren kudeaketari buruzko prestakuntza-ikastaro espezifiko bat eta Merkataritza Dinamizatzeko Bulego batean edo horrekin lotutako entitate batean 12 hilabeteko iraupena duen praktika bat konbinatzen dituztenak.<br>▪ 32 urtetik beherako gazteei zuzendutako programa.<br>▪ Programa hori 2020an desagertzeko eta prestakuntza Retail Euskal Eskolaren proiektu berrian sartzeko aurreikuspena. |
| Sektorearen profesionalizazio orokorrari laguntzea, enpresa-lehiakortasuna eta kudeaketa-teknika berrien ezagutza hobetzera bideratutako **prestakuntza-ekintzen** bitartez. | ▪ Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin lankidetza-hitzarmen bat egitea, merkataritza-banaketako enpresa txikietan kudeaketa aurreratuko programa garatzeko.<br>▪ “Saltokitik Enpresara” Programa, denda txikietarako bideratua, dendarien gaikuntza hobetzeko, negozioaren kudeaketa-gaiei dagokienez.<br>▪ “Agenteak” Programa, Merkataritzako Bulego Teknikoei prestakuntza-jarduerak eta banakako laguntzak eskaintzeko helburua duena. |
| Sektorearen **belaunaldi-aldaketa sustatzeko** programa, enpresen transmisioa dakarten prozesuak bultzatuz eta lagunduz. | ▪ Berriz Enpresa Programa, 3 Merkataritza Ganberekin eta Turismo Zuzendaritzarekin batera.<br>▪ Urte osoan zehar irekita jarraitu duen programarekin jarraitzea, eta haren balorazio positiboa egitea. 32 establezimenduren transmisioa egin da (16 Bizkaian, 8 Araban eta 8 Gipuzkoan). |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Merkataritza-ekintzailetzari** laguntzeko programa, autonomoen, enpresen eta udal-proiektuen merkataritza-ekintzailetza sustatzeko. | ▪ Programaren bigarren deialdia urrian argitaratu zen.<br>▪ Negozio berrien garapena babestea, hasieran eta hedapenean, bai eta merkataritza-enpresa berrien ezarpena eta posizionamendua hobetzeko helburuarekin tokiko erakundeek sustatuko jarduera-proiektuak bultzatzea ere.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, enpresaren kapital sozialaren %50 gutxienez emakumeei dagokienean, aldeko baremazioa emanda. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 1.125 merkataritza-saltokiren azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatzen laguntzea, sektoreko enpleguari eusten laguntzeko | ▪ 366 merkataritza-saltoki modernizatuta<br>▪ Eutsitako 1.100 lanpostu, modernizatutako merkataritza-saltokietan (estimazioa) | ▪ Aurreikusitako merkataritza-saltokien %32 |
| Merkataritza elektronikoa ezartzen laguntzea 800 saltoki txikitan | ▪ 480 merkataritza-saltokik merkataritza elektronikoa ezarri dute<br>▪ 1.400 lanposturi bere horretan eutsi zaie merkataritza elektronikoa ezarri duten merkataritza-saltokietan (estimazioa) | ▪ Aurreikusitako saltokien %60 |
| 38 gazteri esperientzia praktiko bat ematea merkataritza-banaketan | ▪ 12 gazte merkataritza-banaketako prestakuntza-beken onuradunak izan dira (3 gizon eta 9 emakume) | ▪ Aurreikusitako gazteen %32 |
| 15 merkataritza-saltokitan enpresa-transmisioa egiten laguntzea, sektorearen belaunaldi-aldaketarako eta ekintzailetzarako neurri gisa | ▪ 32 merkataritza-saltoki transmititu dira | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%213, bikoitza gutxi gorabehera) |
| 200 merkataritza-saltokiren lehiakortasuna hobetzea, gertuko saltokientzako kudeaketa aurreratuko programen eta enpresa-kudeaketan trebatzeko ekintzen bidez | ▪ 132 merkataritza-saltokik hartu dute parte kudeaketa hobetzeko programetan | ▪ Aurreikusitako saltokien %66. Kontuan hartu behar da 2019an zehar ez dela egon merkataritzaren inguruko ezagutza, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko eta zabaltzeko programaren deialdirik |
| Merkataritza-ekintzailetza babestea, 200 negozio berriren garapena ahalbidetuz (hasiera eta hedapena), eta merkataritza-enpresa berrien ezarpena eta posizionamendua hobetzeko helburuarekin tokiko erakundeek sustatuko jarduera-proiektuak bultzatuz | ▪ 229 enpresa berri sortu dira<br>▪ 500 lanpostu sortu dira enpresa berrietan (estimazioa) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%14 gainetik) |



## 1.3 JARDUERA ILDOA, LANDAN ETA KOSTALDEAN ENPLEGUA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko** programa, landa-eremuen sustapenaren, garapenaren eta dibertsifikazioaren bidez, enpresa berriak eratzea, dauden enpresak handitzeko eta modernizatzeko inbertsioak handitzea eta modernizatzea, bai eta pizgarrien bidezko kontratazioa ere (Leader guneak eta Erein guneak). | ▪ Landa Garapeneko Programa 2020ren esparruko deialdiak argitaratu ziren, aurreratuta Erein guneetarako (2018ko abendua) eta abuztuan Leader guneetarako.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, emakumeen eskaeren balorazioa 15 puntu gehigarritan handituz eta emakumeak kontratatzeagatiko laguntzen zenbatekoa %15 handituz. Irizpide horiek 2018an sartutako irizpideak hobetzen dituzte (5 puntu gehigarri eta/edo zenbatekoaren %10). |
| **Aholkularitzako eta laguntzako** zerbitzu integrala eta pertsonalizatua, elikaduraren balio-katean eta landan eta kostaldean ekintzailetzan edo intraekintzailetzan jardun nahi duten pertsonentzat. | ▪ Geroa ekintzailetzari laguntzeko zerbitzuaren etengabeko jarduera, elikaduraren balio-kateari, zuraren transformazioari eta merkaturatzeari, eta landan eta kostaldean ezartzen diren proiektuei zuzendua.<br>▪ Foru Aldundiekin lankidetzan aritzea, Gaztenek zerbitzua kudeatzeko. Zerbitzu hori zuraren eta elikaduraren balio-katearen ekintzailetzari laguntzekoa da, nekazaritza-ekoizpenaren esparruan. |
| Sektoreko oraingo eta etorkizuneko profesionalak gaitzea eta hobetzea, **prestakuntza-ekintza** orokorrak ere eginez, sektoreko balio-kateari eta gai espezifiko batzuekin lotutako beste ekintza intentsibo batzuei buruzko oinarriko ezagutzetara bideratuak; eta teoria eta prestakuntza praktikoa konbinatuz. | ▪ Gizarte-intereseko gai espezifikoei buruzko prestakuntza-ekintza intentsiboak egitea (100 ordutik gorako ikastaroak), gazteak lehen sektorean eta landa-ingurunean sartzen has daitezen errazteko (mahastizaintza, enologia, artzaintza, baratzezaintza eta frutikultura).<br>▪ Sektoreko oraingo eta etorkizuneko profesionalei zuzendutako prestakuntza jarraitu orokorra ematea, nekazaritza-elikagaien eta landa-eremuaren esparruari buruzkoa, enpresa-proiektu berriak abian jarriz sektorean sartu nahi duten pertsonei eta landa-eremuko biztanleei.<br>▪ Ekintza positiboko ekintzak sartzea, emakumeek lehentasuna izanik Feader Funtsekin kofinantzatutako prestakuntza-ekintza jakin batzuetan. |
| Lehen sektorera **hurbiltzeko lehen esperientzia praktikoa** sustatzea, sektore horretan sartzen ari diren gazteei zuzenduta, nekazaritza-elikagaien ustiategietan eta/edo enpresetan jarduteko 3 eta 6 hilabete arteko bekak emanez. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen, Landa Garapeneko Programa 2020ren esparruan.<br>▪ Nekazari gazteei lehentasuna ematea, lehen sektorearekin edo nekazaritza-elikagaien sektorearekin lotutako ekintzailetza-proiekturen bat duten 41 urtetik gorako pertsonak ere barne hartuta. |
| Nekazaritza-sektorean, nekazaritza-elikagaien industrian eta landan **belaunaldien arteko txandan laguntza emateko** programa, gazteak sartzea dinamizatuz, eta ezagutzaren transferentziari eta enpresen jarraitutasunari laguntza emanez. | ▪ Lehen deialdia irailean argitaratu zen.<br>▪ Pertsonak nekazaritza-sektorean sar daitezen dinamizatzea, nekazaritza-enpresetan 6 hilabetera arteko egonaldien bidez, enpresaren titularrak jarduera uzteko asmoa badu, kudeaketan txanda eta enpresaren jarraitutasuna bermatzeko asmoz, enpresa utzi duten pertsonen eta sartu berri direnen arteko erlazioa eta ezagutza-transferentzia erraztuz. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Landan eta kostaldean 100 enplegu sortzen laguntzea, batez ere gazteengan enpresa- eta ekintzailetza-espiritua piztuz, enpresa berriak abian jarriz eta enpresetan inbertsioak eginez, landa-inguruneen dibertsifikazio ekonomikorako | ▪ 190 enpresa berri sortu dira (Erein Programako 7 enpresa + Leader Programako 39 + Geroa Programako 75 + Gaztenek Programako 69)<br>▪ Enpresa berriek sortutako 403 lanpostu (Erein Programako 74 lanpostu + Leader Programako 165 + Geroa Programako 87 + Gaztenek Programako 77)<br>▪ Lehendik zeuden enpresak dibertsifikatzeko enplegu bat sortu da (Leader Programa)<br>▪ Landako eta kostaldeko inguruneetan kontratatzeko pizgarrien bidez 17 pertsona kontratatu dira (Erein Programako 7 pertsona + Leader Programako 10)<br>▪ Lehendik zeuden 43 enpresari eman zaie laguntza (Erein Programako 17 enpresa + Leader Programako 26 pertsona) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%421). Helburuaren lorpen-mailan izandako aurrerakada izugarria da, hasieran egindako estimazioak ez zituelako kontuan hartzen Gaztenek eta Geroa programak. |
| Lehen sektorearen eta landa-ingurunearen lehiakortasuna eta bideragarritasuna areagotzea, sektoreko 5.500 profesionali trebatzeko eta gaitasunak eskuratzeko laguntza emanez | ▪ 2.943 pertsonek parte hartu parte prestakuntza-ekintzetan (2.062 gizon eta 881 emakume) | ▪ Aurreikusitako profesionalen %53 |
| Lehen sektorean edo nekazaritzako elikagaien enpresetan lan egiten duten pertsonaren lanbide-gaikuntza edo sektorean sartzen diren nekazari gazteena hobetzea, ustiategietan edo nekazaritzako elikagaien enpresetan trukeak eginez | ▪ Ez zen abiarazi deialdia 2019an | ▪ Ez da aplikatzen |
| Nekazaritza-sektorea eta eskaintzen dituen ekiteko aukerak hobeto ezagut daitezela sustatzea, arlo horretara hurbiltzeko 25 beka emanez | ▪ 30 gazte hurbiltzeko beken onuradunak izan dira (21 gizon eta 9 emakume) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%20 gainetik, aurrekontuen exekuzioa handiagoa izan delako) |
| 6 gazte nekazaritza-sektorera, elikadura-industriara eta landa-ingurunera sar daitezela dinamizatzea, belaunaldi-aldaketa babesteko, ezagutzaren transferentzia eta nekazaritza-enpresen jarraipena ahalbidetzeko neurri gisa | ▪ 6 gazte errelebo irekiko programaren onuradunak izan dira (6 gizon) | ▪ Aurreikusitako helburua %100 bete da |

## 1.4 JARDUERA-ILDOA, GIZARTE-EKONOMIAN ENPLEGUA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko** laguntza integraleko programa, ekintzaileei proiektuaren bideragarritasunaren definizioan eta analisian aholkularitza eta laguntza emanez, bai eta ondoren abian jartzean ere, enpresen jarraitutasunari eusteko. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko deialdietako irizpideei eustea, eta gizarte-ekonomiaren eremuan planifikatutako ekintzailetzako eta lurralde-sustapeneko ildo guztiak integratzea.<br>▪ Estaldura enpresa berri guztietarako (kooperatibak eta lan-sozietateak), gizarte-ekonomian lehendik zeuden eta enpresa-jarduera duten entitateak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne hartuta.<br>▪ Laguntzen zenbatekoari 1.000 € gehitzea, enpresa berrian, izaera mugagabea duela, hasi den bazkide-langile bakoitzeko 3.000 €-tik 4.000 €-ra pasatuz.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa 1.000 € handituz, enpresaren eraketa emakume batek egiten badu. |
| Gizarte-ekonomiako enpresen **sozietate-oinarria areagotzeko** programa, bazkide berrien sarrera eta lehendik zeuden bazkideak mugagabe egitea sustatuta, hartara kapital-ekarpena burutzea erraztuta. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko deialdietako irizpideei eustea, sartutako bazkide berri bakoitzeko 2.000 € - 2.500 €-ko laguntzak emanez.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, bazkide-langile moduan sartutako emakumeentzako laguntzen zenbatekoa 300 € handituz. |
| Krisian dauden enpresei (merkataritza-sozietateak) laguntza emateko programa, bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa aztertzeko azterlanen bitartez, jarraitutasuna bermatzeko **gizarte-ekonomiako enpresa bilakatu** daitezen. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko deialdietako irizpideei eustea. |
| Kooperatiben eta lan-sozietateen **enpresa-kudeaketa hobetzeko** programa, plangintzarako eta kudeaketa aurreraturako tresnak erabiltzeko laguntza teknikoaren bitartez | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ 62 kooperatiba eta lan-sozietateren lehiakortasuna hobetzea, kudeaketa kualifikatuko tresnak ezarrita: kudeaketa-planak, aginte-koadro integralak, merkataritza-kudeaketarako planak eta abar aztertuz. |



| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gizarte-ekonomiako 150 enpresa berri sortzen laguntzea | ▪ Gizarte-ekonomiako 97 enpresa berri sortu dira<br>▪ 319 lanpostu sortu dira lagundutako gizarte-ekonomiako enpresa berrietan (198 gizon eta 121 emakume) | ▪ Aurreikusitako enpresa berrien %65 |
| Gizarte-ekonomiako enpresetako lan-bazkide mugagabeen oinarria areagotzea, bereziki emakumeen, gazteen, desgaitasunen bat duten pertsonen eta/edo laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean, 200 bazkide berri sartzeko laguntzak emanez | ▪ 237 gizarte-kontratu mugagabe guztira (126 gizon eta 111 emakume)<br>▪ 92 gizarte-kontratu mugagabe gazteentzat (estimazioa)<br>▪ 111 gizarte-kontratu mugagabe emakumeentzat<br>▪ 47 gizarte-kontratu mugagabe desgaitasunen bat edo laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%18 gainetik) |
| Eraldaketa-prozesuak egiten laguntzea, krisialdia bizi duten gizarte-ekonomiako enpresetan edo oinordetza-dinamikak bizi dituzten enpresetan, enpresari jarraitutasuna emateko eta lanpostuei eusteko irtenbide gisa; horretarako 10 eraldaketa-proiektuk jasoko dute dirulaguntza, gutxienez | ▪ 9 enpresa lagunduta<br>▪ 75 lanposturi bere horretan eutsi zaie lagundutako enpresetan (estimazioa) | ▪ Aurreikusitako proiektuen %90 |
| Gizarte-ekonomiako enpresek kanpoko finantzaketa lor dezatela ahalbidetzea, bereziki enpresa txikienek eta laneratzearekin lotutakoek, elkarteekin batera lan eginez eta 50 enpresarentzako abalak emateko azterketak eginez | ▪ 28 abal eman dira<br>▪ 2.680.000 € emandako abaletan<br>▪ 16 enpresa lagunduta, emandako abalei esker | ▪ Aurreikusitako enpresen %32 |



## 1.5 JARDUERA-ILDOA, TURISMO-SEKTOREKO ENPLEGUA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Enpresen **ekintzailetzaren eta lehiakortasunaren modernizazioaren eta hobekuntzaren** laguntza-programa, negozio-eredu berriak sortzen, soluzio teknologikoak ezarriz berrikuntzak egiten, enpresen eta turismo-zerbitzuen kalitatea hobetzen, eta eskaintza turismo iraunkor, arduratsu eta eskuragarri batera egokitzen lagunduz. | ▪ Maiatzean deialdia argitaratu zen, turismo-negozio berriak sortzeko ekintzailetzari laguntzeko lerro berri bat sartuta (3 urte baino gutxiagoko enpresetarako), eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko beste laguntza-lerro bat.<br>▪ Aurreko urteko deialdiaren baldintzei eta ezaugarriei eustea.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, eskaeren balorazioa 3 puntutan handituz, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plan bat izateagatik, edo Emakunderen erakunde kolaboratzailea izateagatik, edo Lana eta Familia Bateragarri egiteko Plan bat izateagatik. |
| Sektorearen **belaunaldi-aldaketa sustatzeko** programa, enpresen transmisioa dakarten prozesuak bultzatuz eta lagunduz. | ▪ Berriz Enpresa Programa, 3 Merkataritza Ganberekin eta Merkataritza Zuzendaritzarekin batera.<br>▪ Urte osoan zehar irekita jarraitu duen programarekin jarraitzea, eta haren balorazio positiboa egitea. Ostalaritzako 11 establezimendu transferitu dira. |
| **Sektorea profesionalizatzeko** prestakuntza-ekintzak, helmuga turistikoen lehiakortasuna hobetze aldera. | ▪ Kalitate turistikoaren jardunbide egokiekin (SICTED) eta Turismo Kalitatearen Q markarekin, IKTen erabilerarekin eta berrikuntza teknologikoarekin, ingurumen-kudeaketaren sistemekin (Europako Ekolabela) eta energia-eraginkortasunarekin, Enoezagutza Campusarekin eta irisgarritasunarekin lotutako prestakuntza.<br>▪ Berrikuntza teknologikoko eta “xehetasunaren kulturaren” inguruko lantegien antolaketa. |
| **Produktu turistiko berriak** sortu, abian jarri, sustatu eta merkaturatzeko eta helmuga turistikoetako enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programa (Lurralde Proiektu Turistikoak). | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko urteko deialdiaren baldintzei eta ezaugarriei eustea, 799 enpresari lagunduz. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 175 turismo-enpresaren ekintzailetza, modernizazioa eta hobekuntza ahalbidetzea, sektoreko enpleguari eusten laguntzeko | ▪ 86 enpresa turistiko modernizatu ziren<br>▪ 1.215 lanposturi bere horretan eutsi zaie modernizatutako turismo-enpresetan (595 gizon eta 620 emakume)<br>▪ 13 turismo-enpresa berri sortu ziren<br>▪ 63 lanpostu sortu turismo-enpresa berrietan (40 gizon eta 23 emakume) | ▪ Aurreikusitako enpresen %57 |
| Turismo-enpresen transmisioa egiten laguntzea, sektorearen belaunaldi-aldaketarako eta ekintzailetzarako neurri gisa | ▪ 11 enpresa turistiko transmititu ziren | ▪ Ez da aplikatzen |
| Turismoaren sektoreko profesionalen trebakuntza hobetzen laguntzea, enpresen eta helmugen lehiakortasuna bultzatuko duten prestakuntza-ekintzak gauzatuz, eta, ondorioz, turismo jasangarri eta arduratsua bultzatuz | ▪ 1.489 enpresak prestakuntza jaso dute turismo-kalitateko jardunbide egokietan (608), Turismo Kalitatearen Q markan (152), IKTetan (202), Europako Ekolabelean (29), Energia-eraginkortasunean (6), Anfitriones programan (44), Berrikuntza Teknologikoan (45), Irisgarritasunean (133) eta Enoezagutza Campusean (270). (Kontuan hartu behar da enpresa batek zenbait prestakuntza-ekintzatan har dezakeela parte)<br>▪ 2.613 pertsonari eman zaie prestakuntza “xehetasunaren kultura” delakoan eta berrikuntza teknologikoan | ▪ Ez da aplikatzen |

## 1.6 JARDUERA-ILDOA, ENPLEGUA BERARIAZ SUSTATZEA EGOERA AHULAGOAN DAUDEN ESKUALDE ETA UDALERRIETAN

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Indartu programa, **enplegua sortzeko egoera ahulenean dauden guneetan ekoizpen-inbertsioak egiten dituzten** proiektuak sustatzen dituena, produktuaren eraldaketa-prozesuan hobekuntzekin lotutako inbertsioei, gaitasunak handitzearekin edo jarduera berriak garatzearekin lotutakoei lehentasuna emanez. | ▪ Deialdia apirilean argitaratu zen.<br>▪ Jarduerak Nerbioi Ibaiaren Ezkerraldeko zonetan (Bizkaia) eta Oiartzualdean (Gipuzkoa), Europar Batasuneko Eskualdeko Laguntzen Mapan gune hautagarri gisa deklaratutako guneen parte direnak, eta EAEko urteko batezbestekoaren %20tik gorako langabezia-tasa duten udalerrietan.<br>▪ Onartutako gutxieneko inbertsioa 2.000.000 €-koa izango da enpresa handientzat, eta 500.000 €-koa, ETEentzat. Baldintza horiek ez badira betetzen, gutxienez 50 lanpostu sortu behar dira enpresa handietan, eta 15 lanpostu, ETEetan.<br>▪ Programaren emaitzak hobetu egin dira 2018ko emaitzekin konparatuta, eta hasierako kreditua (12 M €) handitu egin da 2 M €-tan.<br>▪ 41 enpresari 13,9 M €-ko dirulaguntzak eman zaizkie, onartutako inbertsioa 181,3 M €-koa izanik. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 10 enpresari laguntzea enplegua sortzeko inbertsio-proiektuak garatzen egoera ahulean dauden eremuetan, 150 lanpostu sortzen lagunduz eta lehendik zituzten lanpostuei eutsiz | ▪ 41 enpresa lagunduta<br>▪ 355 lanpostu sortu dira laguntza jaso duten enpresetan<br>▪ 3.369 lanposturi bere horretan eutsi zaie, lagundutako enpresetan | ▪ Enpresei eta enpleguari buruzko helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%410 enpresetan eta %236 enpleguetan) |

2. esparru operatiboa

# EKINTZAILETZA SUSTATZEA

## 2.1 JARDUERA-ILDOA, EKINTZAILETZA BERRITZAILEA ETA INTRAEKINTZAILETZA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Ekintzaile programa, **izaera industrial berritzailea duten enpresa-ekimen berriak edo horiekin lotutako zerbitzuak** garatzen laguntzeko, ideia definitzeko eta lantzeko fasean laguntza eta aholkularitza ematea barne, bai eta proiektua abian jartzeko finantziazioa lortzeko ere. | ▪ Urte osoan zehar deialdi irekia izatea etengabe, lagundutako proiektuen bolumena aurreko urtekoaren antzekoa izanik (hazkunde garrantzitsua izan zen urte hartan, %28 ingurukoa).<br>▪ BICekin (Business Innovation Centres) lankidetzan aritzea, 3 lurraldeetan, ekintzailetza-ideiak hautemateko eta merkatura bideratzeko.<br>▪ Ekintzailetza-ildoak Erakundearteko Ekintzailetza Planarekin lerrokatzea. |
| Gauzatu Industria programa, oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren **ETE industrialak sortzeko eta garatzeko** xedea duena. | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Gehienez 24 hilabeteko epean lanpostu garbiak sortzeko konpromisoa onartzea.<br>▪ 57 enpresari 20 M €-ko dirulaguntzak eman zaizkie, onartutako inbertsioa 69,3 M €-koa izanik.<br>▪ ETEek balorazio positiboa egitea, finantza-entitateen tresna osagarria izanik. |
| Barnekintzaile programa, finkatutako enpresa industrialetan **intraekintzailetza-proiektu** berriak aztertzen, definitzen eta abian jartzeko laguntzeko. | ▪ Urte osoan zehar deialdia etengabe irekita, lagundutako proiektuak %12 murriztuz aurreko urtekoekin konparatuta.<br>▪ Agente sustatzaile nagusiek programaren bosgarren deialdiaren balorazio positiboa egitea. |
| BIND 4.0 programa, industria 4.0ren arloan **startupak sustatzekoa**, startup bakoitzerako industria-enpresa handi batekin kontratu bat eta mentoring eta bizkortzeko programa pertsonalizatu bat erraztuz. | ▪ Programaren laugarren deialdia.<br>▪ Oso emaitza positiboak, 577 startup aurkeztuta, iaz baino %10 gehiago. 53 proiektu egitea adostu zen, 38 startupen eta 52 trakzio-enpresaren artean, aurreikusitako helburuak gaindituz. Proiektuen %47 manufaktura aurreratuaren esparruari dagozkio, %15 energiari, %15 osasunari eta %23 elikadurari, programan aurten sartutako esparru berriari. |
| Ekintzailetza-proiektuak finkatzen laguntzea, Basque Funtsa eta Aurrera programaren bitartez, **kapital-arriskua/kapital-hazia sustatzeko,** proiektuen finantza-beharrei erantzuteko, garapen- eta finkatze-faseetan. | ▪ Urte osoan zehar deialdia etengabe irekita.<br>▪ Aurrera finantza-programaren ezaugarriei eustea. Programa hori 2018an sortu zen, jarduera ekintzailea duten eta enplegua sortzeko konpromisoa hartzen duten ETE berriei epe luzerako maileguak emateko.<br>▪ Basque Funtsa tresnari dagokionez, 2019an ez zen izan ekintzailetza-proiektuei laguntzeko jarduerarik. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Oinarri teknologiko berritzailea duten 40 enpresa-proiektu berri sortzen eta abian jartzen laguntzea | ▪ Ekintzailetzako 121 proiektu garatuta, horietan 85 enpresa sortu zirela estimatuta (proiektuen %70 enpresa bihurtuko direneko hipotesia kontuan hartuta)<br>▪ 355 lanpostu sortu dira enpresa berrietan (estimazioa) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%212) |
| Industriako 50 ETEtan, oinarri teknologikoko proiektu berritzaileak abian jartzen laguntzea | ▪ 57 ETEri eman zaie laguntza (lehendik zeuden 48 enpresa eta 9 enpresa berri)<br>▪ 320 lanpostu sortu dira proiektu berrien bidez<br>▪ 1.391 lanposturi bere horretan eutsi zaie, lagundutako enpresetan | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%14 gainetik) |
| Intraekintzailetzako 50 ekimenen garapena sustatzea | ▪ 40 enpresak hartu dute parte Intraekintzailetza-programetan<br>▪ 42 enpresa berri sortu dira<br>▪ 125 lanpostu sortu dira | ▪ Aurreikusitako ekimenen %84. Nabarmentzekoa da proiektuen ehuneko handi bat enpresa bihurtzen dela |
| Trakzio-enpresekiko lankidetza-proiektuen barnean, 25 startupi merkatura ateratzen laguntzea | ▪ 38 startupek hartu dute parte<br>▪ 52 trakzio-enpresak hartu dute parte<br>▪ 53 lankidetza-proiekturi eman zaie laguntza | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%52 gainetik) |
| 15 ekintzailetza-ekimen sendotzen laguntzea, arrisku-kapitalaren/hazi-kapitalaren bitartez eta sortutako enpresa berriei epe luzeko maileguak emanez | ▪ 20 enpresari eman zaie laguntza (Aurrera programa)<br>▪ 60 lanpostu sortu dira edo bere horretan eutsi zaie, lagundutako enpresetan (Aurrera Programa) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%33 gainetik) |

## 2.2. JARDUERA-ILDOA. AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Ekintzaileentzako aholkularitza eta laguntza pertsonalizatuko** programa, enpresa-ideia berrien garapenean, ekimen berriak abian jartzen eta haiek sendotzen. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Ekintzaileek programaren balorazio orokor positiboa egitea, 2017an sartutako proiektu berriak ezartzeko laguntza-ildoari eutsiz.<br>▪ Aurreko urteko deialdiko laguntzen zenbatekoari eustea, eta ekintza positiboko irizpideak sartzea, emakume ekintzaileentzako laguntzen zenbatekoa %15 handituz.<br>▪ 254 pertsonari laguntza ematea beren enpresa-ideiak garatzeko; 159 pertsonari, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko; 378 pertsonari, enpresa-jarduera sendotzeko; eta 57 pertsonari, proiektua ezartzeko. |
| Ekintzailetza sustatzeko programa, **langabezian daudenen artean lan autonomoa sortzea** erraztuz, kapitalizazio errazten duten neurrien bitartez. | ▪ Laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen esleipena otsailean argitaratu zen.<br>▪ 554 pertsona berrik dirulaguntza jaso zuten 2019an, Gizarte Segurantzako kuotak ordainduz, eta horietatik 233 beren konturako autonomoak ziren, eta 269, gizarte-ekonomiako enpresetako bazkideak. |
| **Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea** ekintzailetzako laguntza-ildoak garatzen, pertsona ekintzaileei arreta eta aholkularitza ematea, enpresa berriak sortzen laguntzea eta ekintzailetza berriei sendotzen laguntzea barne hartuta. | ▪ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten uztailean, DEMA programaren esparruan, ekintzaileei aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua emateko, enpresa berriak sortzea sustatzeko eta lehendik daudenak sendotzeko programaren esparruan, alegia.<br>▪ Gaztenpresa Fundazioarekin lankidetzan aritzea, ekimen ekintzaile berritzaileei laguntza emateko, lanik gabeko pertsonek enpresa berriak sortzera bideratutako zerbitzuen bidez, eta enpresak eta profesionalak garatzeko eta sendotzeko zerbitzuen bidez, bereziki gazteei eta gizarteratze-proiektuei zuzenduta. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 300 mikroenpresa eta enpresa txiki berri garatzen eta martxan jartzen laguntzea, euskal administrazioaren baliabideekin edo beste eragile batzuen lankidetzari esker (3.3 ildoan aipatutako gazteen ekintzailetza barne hartu gabe) | ▪ 680 enpresa sortu dira (Ekintzaileentzako Laguntza Programako 55 enpresa 30 urteko edo gehiagoko adin-tartean + Dema Programako 243 + Gaztenpresa Programako 382 enpresa, 35 urteko edo gehiagoko adin-tartean)<br>▪ 848 lanpostu sortu dira (estimazioa: %54 gizonak eta %46 emakumeak) (Ekintzaileentzako Laguntza Programako 60 lanpostu 30 urteko edo gehiagoko adin-tartean + Dema Programako 268 + Gaztenpresa Programako 520 lanpostu, 35 urteko edo gehiagoko adin-tartean) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da. Kontuan hartu behar da emaitza horietan Gaztenpresa Programaren laguntza duten enpresak sartu direla (35 urteko edo gehiagoko pertsonen adin-tartean), eta horiek 3.3 ildoan aurreikusitako helburuetan hartzen ziren kontuan hasieran, bere osotasunean. Gazte Ekintzailetza |
| 700 mikroenpresa eta enpresa txiki berriren sendotzea ahalbidetzea, sortu berri diren enpresen ezarpena, sustapena, funtzionamendua eta kudeaketa bultzatuz | ▪ 362 enpresa berri sendotuta<br>▪ 378 lanposturi bere horretan eutsi zaie sendotutako enpresetan (189 gizon eta 189 emakume)<br>▪ 56 enpresa berriri ezartzeko laguntza eman zaie<br>▪ 57 lanposturi bere horretan eutsi zaie ezartzeko laguntza jaso duten enpresetan (30 gizon eta 27 emakume) | ▪ Aurreikusitako enpresen %60 |
| 500 langaberi lan-munduan sartzeko erraztasunak ematea, ekintzailetza-proiektuak gauzatzeko, langabeziaren kapitalizazioa babestuz | ▪ 554 langaberi laguntza eman zaie (200 autonomo eta 314 bazkide)<br>▪ 200 enpresa berri sortu dira<br>▪ 314 pertsona kooperatiba eta lan-sozietateetako bazkide gisa sartu dira | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%11 gainetik) |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Ekintzailetzaren arloko lankidetza-kanalak hobetzea beste instituzio eta erakunde batzuekin, ekintzailetzarako laguntza-zerbitzuen onuradunen ekintzailetza-ibilbideari buruzko informazioa biltzeko sistema bat ezarriz | ▪ Laneratzea Sustatzeko Zerbitzuak eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak informazioa biltzeko proposamenak egitea<br>▪ Ekintzailetza-ibilbide bat duten lagundutako pertsonak 2020tik aurrera zenbatuko dira | ▪ Ez da aplikatzen |
| Ekintzailetzari laguntzeko programen onuradun izan diren enpresa berriek bere horretan jarraitzen duten edo bizirik iraun duten ikusteko jarraipen-dinamika bat ezartzea, horiek sortu eta gutxienez lehen hiru urteetan | ▪ Lagundutako enpresa berriek bizirik iraun duten edo bere horretan jarraitzen duten ikusteko jarraipena: Egin gabe | ▪ Ez da aplikatzen |

3. esparru operatiboa

# GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA

## 3.1. JARDUERA-ILDOA. HEZKUNTZATIK LANERA IGAROTZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Ikasketetatik lanera igarotzeko programa zehatz bat, **unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleei 3 hilabeteko lehen esperientzia praktikoa** errazteko xedea duena, haien ezagutzak, abilezia teknikoak eta beharrezko trebetasunak handitzeko, lanpostu kualifikatu bat izan dezaten eta denetariko ekoizpen-sektoreetako enpresen behar espezifikoei erantzuteko. | ▪ Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateek 2017. urtean sinatutako esparru-akordioari eustea.<br>▪ Programaren funtzionamenduaren hirugarren urtean, unibertsitateko 849 ikaslek parte hartu dute, ebaluazioa positiboa izan da eta aurreikusitako helburuak gainditu dira.<br>▪ Protokolo bat aplikatzea, programan parte hartu duten unibertsitateko ikasle gazteen laneratzearen jarraipen espezifikoa egiteko.<br>▪ Enpresei adieraztea beren lankidetza garrantzitsua dela gazteei lehen lan-esperientzia errazteko, hartara enpresen benetako beharretara hobeto egokituko diren profil profesionalak errazteko. |
| **Ikasketetatik lanera igarotzeko lanbide-heziketaren esparruko** programa espezifikoa, titulurik ez duten eta Lan Zentroetan Prestakuntza-modulua egin duten ikasleei lehen lan-esperientzia errazteko. | ▪ Laguntzei buruzko agindua aldatzea, 2018rekin konparatuta, Lan Zentroan Prestakuntza-modulua ez-ohiko aldian egin behar duten ikasleentzat; hau da, 2019ko irailetik abendura bitartean. Ikasle horiek laneratzeko zailtasun handiagoa izan ditzakete modulua ohiko aldian (2019ko martxotik maiatzera bitartean) egiten duten ikasleek baino.<br>▪ Enpresako egonaldiari eta bekak eska ditzaketen ikasleen egoera akademikoari buruzko aldakuntza horiei esker, aldaketa garrantzitsu bat sortu da, eta uste da denbora beharko duela, behar bezala sendotzeko. Hori erakusten dute eman diren bekek: 384 beka eman dira, hasieran aurreikusitako 650 beken ordez.<br>▪ Gainera, adinaren baldintza berrikusteko beharra hauteman da; izan ere, 30 urte baino gehiago dituzten ikasleen zati garrantzitsu batek ez du aukerarik izan beka horiek eskuratzeko. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako kupo bat ezartzeko aukeraz hausnarketa egitea ere aurreikusten da, laneratzeko zailtasun handienak dituen kolektiboa delako. |
| **Lankidetzan aritzea,**azken ikasturteko ikasketak egiten ari diren edo unibertsitatean eta/edo lanbide-heziketan berriki ikasketak egin dituzten gazteei lan-orientazioa eta laguntza ematen adituak diren eragileekin. | ▪ Lankidetza-hitzarmenak Deustuko Unibertsitatearekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin, unibertsitateetako campusetako Enplegu Guneak garatzeko, enplegua bilatzeko baliabideak erabiliz, eta orientatzaile batek laneratzeko laguntza eta aholkularitza emanez. Enplegu Guneek 1.600 pertsonari eman diete arreta (605 gizon eta 995 emakume), eta arreta emandako pertsonen laneratzeko helburua %10ekoa izan da.<br>▪ Novia Salcedo fundazioarekin lankidetza-hitzarmena sinatzea, gazte tituludunak laneratzeko ekintza berritzaileak egiteko, arreta berezia emanda genero-berdintasuna ezartzeari eta enpresaren gizarte-erantzukizuna garatzeari. 278 gaztek (113 gizon eta 165 emakume) hartu dute parte ekintza horietan, eta laneratzeko helburua 50 pertsonakoa izan da. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko esperientzia praktikoa ematea unibertsitateko azken mailako 900 ikasleri | ▪ Unibertsitateko eta lanbide-heziketako 849 ikaslek hartu dute parte programa horretan (291 gizon eta 558 emakume) | ▪ Aurreikusitako ikasleen %94 |
| Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko esperientzia praktikoa ematea Lantokiko Prestakuntza modulua egiten ari diren eta oraindik titulurik ez duten Lanbide Heziketako 650 ikasleri, enpresetan egindako egonaldia luzatuz | ▪ Unibertsitateko eta lanbide-heziketako 384 ikaslek hartu dute parte programan | ▪ Aurreikusitako ikasleen %59 |
| Araututako hezkuntzaren ondoren, gazteen laneratzea sendotzea | ▪ Gazteen %53k ikasketak bukatu eta 6 hileko epean lan-kontratua lortzen du, unibertsitateko ikasketak amaitzen dituzten ikasle guztien artean (eskuragarri dagoen 2018ko azken datua) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programaren ezaugarriak eta barne-prozedurak berrikustea, beren lan-modua errazteko eta enpresentzat erakargarriagoa izateko | ▪ 2018ko laguntzei buruzko agindua agindu berri batez ordeztea, lanbide-heziketaren esparruan<br>▪ Unibertsitateko esparruko akordioari eta programaren ezaugarriei eustea | ▪ Ez da aplikatzen |

## 3.2. JARDUERA-ILDOA. LEHEN AUKERA PROGRAMA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| 30 urtetik beherako gazteei **lehen lan-aukera** erraztera bideratutako programa, **beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako enpresek egindako kontratuen bitartez.** | ▪ Deialdia 2018ko abenduan aurreratuta argitaratu zen, 616 kontraturi laguntza emanez; kontratu horietatik 105 kontratu mugagabeak izan dira (%17).<br>▪ Programan 2018an sartutako hobekuntzei eustea, ezaugarriei eta programa ebazteko prozedurei dagokienez, enpresentzako erakargarriagoa izan dadin; horretarako, hobetu egingo dira izangaiak aukeratzeko formulak eta kontratuak egiteko unea. Horrez gain, unibertsitateko titulazio guztiei multzo bakar batean eusten zaie, banaketa hori lan-merkatuan titulazioaren araberako lan-eskaintzari egokituz.<br>▪ Programaren aurreko deialdian parte hartu zuten gazteen laneratzearen jarraipen automatikoari eustea, programa horrek enplegagarritasuna handitzeko zer ekarpen egiten duen aztertzeko.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbateko guztiak % 10 handituz, emakumeak gutxien ordezkatuta dauden arloetan emakumeak kontratatzen badira. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 600 gazteri lehendabiziko lan-aukera eskaintzea, beren titulazioarekin lotutako lanpostuetan, enpresek kontratatuta | ▪ 616 gazte kontratatu dira programaren bitartez (471 gizon eta 145 emakume)<br>▪ 514 enpresa laguntzen onuradunak izan dira | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%0,26 gainetik) |

## 3.3. JARDUERA-ILDOA. GAZTE EKINTZAILEEI LAGUNTZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Unibertsitatearen esparruan ekintzailetzaren kultura sustatzera bideratutako **Ekintzailetza Beken** programa, enpresako tailerren garapenaren eta enpresa berrien sustapenaren bitartez, aholkularitza, ideien garapenari laguntzea eta azpiegituren esku jartzea barne hartuta. | ▪ Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateek 2017. urtean sinatutako esparru-akordioari eustea.<br>▪ Balorazio positiboa programaren funtzionamenduaren hirugarren urtean, unibertsitatearen esparruan, bereziki erakargarria izanik beren enpresa-ideia garatu nahi dutenentzat. 163 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 74 aukeratu dira abian jartzeko; 88 ikaslek parte hartu dute.<br>▪ Enpresa-proiektu berritzaileen aurkezpena prestakuntza-tailerrak eta ideia berrien aholkularitzari eta laguntzari buruzko mintegiekin konbinatu da. Gehien baloratzen den alderdietako bat azpiegiturak jartzea da, enpresa-sarea sortzea sustatzeko, beste programa batzuekin lankidetzan arituta. |
| Enpresa-simulazioko proiektuak garatuz, **Lanbide Heziketaren esparruan ekintzailetzaren kultura** sustatzeko programa. | ▪ 2018an diseinatutako ekintzailetzaren kultura sustatzeko laguntzei buruzko aginduaren jarraipena, Eusko Jaurlaritzak, Ikaslanek (Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkartea) eta Hetelek (Gizarte Ekimeneko Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatuen Elkartea) 2017an ezarritako esparru-akordioa ordezkatuz.<br>▪ Uztailean programaren bigarren deialdia argitaratu zen, ikasgelan enpresa-simulazioko proiektuei laguntza ematera bideratua; proiektu horiek ikastetxe publikoetako edo zentro hitzartuetako Erdi Mailako edo Goi Mailako zikloetako bigarren mailako ikasleek egin dituzte. Parte hartzeko 5.100 eskaera jaso dira, eta 913 ikasle izan dira horien onuradunak. |
| **Berariaz lanbide-heziketako ikasleen artean ekintzailetza sustatzeko Urrats Bat** programa. | ▪ Tknikaren bidez koordinatua.<br>▪ Lanbide-heziketako 60 ikastetxek parte hartu dute, 12.000 ikasle baino gehiago sentsibilizatu dira, eta 200 enpresa-proiektu baino gehiagoren prestakuntza-tutoretza egin da, laguntza-fasean.<br>▪ Mikroenpresen garapena sustatzea, hasieran batezbesteko 20.000 €-ko inbertsioa eginez, urteko batezbesteko fakturazioa 50.000 €-ko izanik, eta enpresek batez beste 1,8 lanpostu izanik. |
| **Ekintzaileentzako aholkularitza eta laguntza pertsonalizatuko** programa, enpresa-ideia berrien garapenean, ekimen berriak abian jartzen eta haiek sendotzen. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko urteko deialdiarekiko, laguntzen zenbatekoari eutsi egin zaio, 30 urtetik beherako pertsonei zenbatekoa %15 handitu zaie, eta emakume ekintzaileei, %15.<br>▪ 139 pertsonari laguntza ematea beren enpresa-ideiak garatzeko; 74 pertsonari, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko; 92 pertsonari, enpresa-jarduera sendotzeko; eta 16 pertsonari, proiektua ezartzeko. |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea** ekintzailetzako laguntza-ildoak garatzen, pertsona ekintzaileei arreta eta aholkularitza ematea, enpresa berriak sortzen laguntzea eta ekintzailetza berriei sendotzen laguntzea barne hartuta. | ▪ Gaztenpresa Fundazioarekin lankidetzan aritzea, ekimen ekintzaile berritzaileei laguntza emateko; lanik gabeko pertsonek enpresa berriak sortzera bideratutako zerbitzuen bidez, eta enpresak eta profesionalak garatzeko eta sendotzeko zerbitzuen bidez, bereziki gazteei eta gizarteratze-proiektuei zuzenduta. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gazteen ekintzailetza sustatzea Lanbide Heziketaren esparruan, 75 enpresa sortzen lagunduz | ▪ 99 enpresa sortu dira lanbide-heziketaren esparruan (Urrats Bat programa)<br>▪ 140 lanpostu sortu dira lanbide-heziketaren esparruko ekintzailetza berrietan (Urrats Bat programan) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%32 gainetik) |
| Lanbide-heziketako ikasleen artean ekintzailetzaren kultura sustatzea; horretarako, ikasgelan egindako enpresa-simulazioko proiektuei laguntza emanez, zeinetan erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetako 300 ikaslek parte hartuko duten | ▪ Lanbide-heziketako 913 ikasle ekintzailetzaren kultura sustatzeko laguntzen onuradunak izan dira<br>▪ 138 proiekturi laguntza eman zaie, lanbide-heziketaren esparruan | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%304) |
| Lan-munduan ekiteko esperientzia praktikoa ematea unibertsitateko azken urtean dauden edo aurreko ikasturtean titulua eskuratu duten 75 ikasleri, unibertsitateekin egindako lankidetza-hitzarmenen bitartez | ▪ Unibertsitateko 88 ikaslek parte hartuko dute enpresak sortzeko egon daitezkeen proiektuetan (49 gizon eta 39 emakume)<br>▪ 74 proiekturi eman zaie laguntza, unibertsitate-hezkuntzaren esparruan | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%17 gainetik) |
| Gazteek garatutako eta abiarazitako 425 enpresa berriri laguntzea, bai euskal administrazioaren bitartekoetatik emandako zerbitzuen bidez (Lanbide, SPRI...), bai beste erakunde batzuekin eta eragile espezializatuekin hitzartutako tresnen bidez | ▪ 248 enpresa sortu dituzte gazteek (25 Ekintzailetzako Laguntza Programaren bitartez, 30 urtetik beherako adin-tartean + 223 Gaztenpresa Programaren bitartez, 35 urtetik beherako adin-tartean)<br>▪ 248 lanpostu sortu dira gazteen ekintzailetzari esker (estimazioa: %54 gizonak eta %46 emakumeak) (25 Ekintzailetzako Laguntza Programaren bitartez + 223 Gaztenpresa Programaren bitartez); (185 gizon eta 150 emakume) | ▪ Gazteek enpresa berrien %58 sortu dituztela aurreikusten da. Kontuan hartu behar da emaitza horietan Gaztenpresa Programaren laguntza duten enpresak soilik sartu direla 35 urtetik beherako pertsonen adin-tartean (35 urteko edo gehiagoko adin-tartea 2.2. jarduera-ildoan hartu da kontuan, autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzeari buruzkoan). |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gazteen 100 mikroenpresa eta enpresa txiki berri sendotzea ahalbidetzea, sortu berri diren enpresen sustapena, funtzionamendua eta kudeaketa bultzatuz | ▪ 16 enpresa berriri eman zaie ezartzeko laguntza<br>▪ 18 lanposturi bere horretan eutsi zaie, ezartzeko laguntza jaso duten enpresetan (6 gizon eta 12 emakume)<br>▪ 86 enpresa berrik jaso dute sendotzeko laguntza<br>▪ 92 lanposturi bere horretan eutsi zaie sendotzeko laguntza jaso duten enpresetan (48 gizon eta 42 emakume) | ▪ Sendotzeko aurreikusitako enpresen %86 |

## 3.4. JARDUERA-ILDOA. 3.4- GAZTEEI ZUZENDUTAKO TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen bitartez, langabeen eta gazteen kontratazioa** sustatzea, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko eta tokiko enpresek langabeak kontratatzea sustatzen duten jarduerei laguntza emanez. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen (ikusi 5.1 jarduera-ildoa, Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planak).<br>▪ Programaren ezaugarriei eustea, aurreko urtearekin konparatuta.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, kontratatutako emakumeen kopurua kontratatutako pertsona guztien %40 izanik, gutxienez. |
| **Tokiko entitateek gazteak kontratatu ditzatela** sustatzea, 2014-2020ko Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, haien enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa, lan-esperientzia berenganatuz. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Tokiko entitateek 8 edo 12 hilabeteko lanaldi osoko kontratazioak egitea, erabilera publikoko jarduereetan edo gizarte-intereseko jarduereetan, tokiko eremuan.<br>▪ 31 tokiko entitate 260 egiteko laguntzen onuradunak izan dira.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea aukeraketa-prozesuan, izangaien artean gutxienez emakume bat egonik, eta baldintza hori betetzen ez bada, behar bezala justifikatuz. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako pertsonen %30, gutxienez, 35 urtetik beherako gazteak izan daitezela bermatzea | ▪ 773 gazte kontratatu dira Tokiko Enplegu Planen bitartez (behin-behineko datua)<br>▪ Tokiko Enplegu Planen bitartez kontratutako pertsonekiko, %30 gazteak izan dira (behin-behineko datua) | ▪ Helburua bete da |
| Tokiko erakundeek 250 gazte kontratatu ditzatela sustatzea, Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, laneko esperientzia eskuratuz beren enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa | ▪ 260 gazte kontratatu dituzte tokiko erakundeek, Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan (emandako kontratuak, entitateek gauzatu beharrekoak) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%4 gainetik). Kontuan hartu behar da datua emandako kontratuei dagokiela, eta tokiko entitateek gauzatu behar dituztela |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Enpresako langileen plantilla gaztetu dadin sustatzea **gazteak barneratuko dituzten txanda-kontratuak** bultzatzeko programa baten bitartez. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Programaren ezaugarri orokorrei eustea, aurreko urteko deialdiarekin konparatuta, 2019an dirulaguntzaren helburu zen kolektiboa handituz. Hau da, txanda-erreleboari laguntza ematen jarraitzen da, gazteen enplegua sustatzeko neurria den aldetik, eta horrez gain, 45 urtetik gorako langabeen kolektiboa sartu da, lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurria den aldetik (ikusi azken puntu hori 5.2 jarduera-ildoan).<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa % 10 handituz, emakumeak kontratatzen badira. |
| **2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza** onartzea, Euskal Administrazio Publiko osoan, Osasunaren, Hezkuntzaren, Segurtasunaren eta Administrazio Orokorraren arloetan, gazteen sarrera errazteko. | ▪ Gobernu Kontseiluak, 2019ko abenduaren 17an, 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen, guztira 6.592 lanpostu eskainiz (6.482 lanpostu txanda irekikoak eta 110 barne-sustapenekoak).<br>▪ Lanpostuak 2020an zehar betetzea, Osasuneko, Hezkuntzako eta Administrazio Orokorreko lanpostuen %40 gazteek beteko dituztela estimatuta. Segurtasun-arloari dagokionez, lanpostu guztiak 25 urtetik beherako gazteentzako dira.<br>▪ Ekintza positiboko neurriak sartzea, berdinketa hausteko irizpidetzat emakumeen alde egitea hartuta, emakumeen ordezkaritza %40tik beherakoa den kidegoetan eta eskaletan. |



| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 100 gazteren kontratazioa sustatzea, sektore pribatuko errelebo-kontratuen edo kontratu osagarrien bidez | ▪ 53 gazte errelebo-kontratuen bitartez kontratatu dira (36 gizon eta 17 emakume)<br>▪ 6 gazte kontratu osagarrien bitartez kontratatu dira (2 gizon eta 4 emakume) | ▪ Aurreikusitako errelebo-kontratuen %59 |
| Kontratazio-programaren helburuak eta baldintzak berrikustea, errelebo-kontratuen edo kontratu osagarrien bitartez, enpresentzako erakargarriagoa izan dadin | ▪ Programaren oinarri arautzaileak berrikustea: Bai, 2019an berrikusi zen eta ekitaldiko deialdiari egokitu zitzaion | ▪ Ez da aplikatzen |
| 2.644 gazte laneratzeko babesa eskaintzea, euskal administrazio publikoan erretiratutako pertsonen lanpostuak ordezkatuta (2019ko Lan Eskaintza Publikoan guztira deitutako 5.860 lanpostuetatik) | ▪ 3.133 gaztek lanpostua lortu dute euskal administrazio publikoaren Lan Eskaintza Publikoen bitartez | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%18 gainetik) |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Gazteen itzuleraren** programa, gutxienez azken 12 hilabeteetan EAEtik kanpo bizi izan ondoren itzuli nahi duten gazteei euskal lan-merkatuan txertatzeko erraztasunak ematera bideratua. | ▪ Programaren hirugarren deialdia izapidetze aurreratuan argitaratzea, enpresek 2019ko urtarriletik urrira arte eskaerak aurkezteko aukera izanik.<br>▪ Programaren oinarri erregulatzaileak aldatzea, parte-hartzearen denborari buruzko baldintza zabalduz, itzuli direnak ere barne hartuta, itzuli direnetik 3 hilabete baino gehiago pasatu ez badira.<br>▪ Programaren komunikazioa indartzea, hedapen-kanpaina baten bitartez, zenbait ekintza eginez: sare sozialetan hedatzea, LinkedIn barne, EAErekin lotutako eta Euskaditik kanpo bizi diren pertsonei; 6 bideo sortzea, 3 enpresaren eta itzuli eta kontratatuak izan diren 3 pertsonaren testigantzak hartuta; eta Lanbideren webguneko informazioa hobetzea, programari buruzko informazio eraginkorragoa emango duen “Iurrartzeko” web-orri baten bitartez, enpresentzako eskuragarriagoa izango dena.<br>▪ Eskaera-kopurua %67 handitu da (23 eskaera), eta diruz lagundutako kontratuen kopurua, %100 (12 kontratu). Bi arrazoi egon dira eskaerak ez onartzeko: eskaintza kudeatu ondoren postuak bete ezina, eta/edo enpresa eskatzaileak uko egin izana.<br>▪ Ahaleginak egin beharra hauteman da, enpresek programa hizkuntzak dakizkiten eta lan-esperientzia duten pertsonak aurkitzeko aukera moduan ikus dezaten. Gainera, programaren etorkizuneko deialdietarako, adinari buruzko hausnarketa egiteko aukera planteatu da, 39 urtera arte handitzeko, edo baita ere adinaren baldintza baztertzeko.<br>▪ Itzultzeko asmoa duten pertsonen fitxategian inskribatzeko baldintzari eustea; 2019ko abenduaren 31n, 120 pertsona zeuden inskribatuta (50 gizon eta 70 emakume).<br>▪ Ekintza positiboko neurriak sartzea, laguntzen zenbatekoa %10 handituz, emakumeak kontratatzen badira. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 50 gazte itzultzeko laguntzak ematea, gazteen itzulerarako diseinatutako babes-zerbitzuen bitartez | ▪ 12 pertsona itzuli dira, gazteen itzulerarako babes-zerbitzuen bitartez (7 gizon eta 5 emakume) | ▪ Aurreikusitako pertsonen %24 |
| Erakunde eta instituzioekin lankidetza-ildo berriak garatzea, gazteen itzulerarako programaren hedapen handiagoa lortzeko enpresen eta itzuli nahi duten gazteen artean | ▪ Beste erakunde eta instituzio batzuekin lankidetzarako dinamika sortzea, programaren hedapena eta ezagutza sustatzeko: Ez dira egin | ▪ Ez da aplikatzen |

## 3.7. JARDUERA-ILDOA. TALENTU GAZTEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Atzerriko beken** esperientziako programak, Beint eta Global Training, prestakuntza teorikoa eta atzerriko enpresetan eta entitateetan egindako izaera praktikoko prestakuntza konbinatzen dituztenak, unibertsitateko eta lanbide-heziketako graduko tituludunentzat. | ▪ Beint programaren deialdia apirilean argitaratu zen, eta Global Training programaren deialdia, maiatzean.<br>▪ Aurreko urteko deialdiko ezaugarriei eustea, eta etorkizuneko deialdietarako programak berrikusteko aurreikuspena egitea. |
| **Nekazaritzako, arrantzako eta elikadurako sektoreko zientziaren, teknologiaren eta enpresaren arloko** programa espezifikoa, ikertzaileei eta teknologoei zuzendutako beken bitartez. | ▪ Deialdia aurreko urteko azaroan argitaratu zen.<br>▪ Aurreko urteko deialdiko ezaugarriei eutsi zaie, doktore tesiak egiten eta ikerketa-proiektuak, garapen teknologikoa eta berrikuntza garatzen lagunduz, 2 eta 4 urte arteko iraupeneko beken bitartez.<br>▪ Gainera, prestakuntza-ekintza espezifikoak garatu dira arrantzaren eremuan, arrantza-ontzietan praktikak egitea barne (Itsasoratu programa); 23 pertsonek parte hartu dute prestakuntza praktiko horretan. |
| **Hezkuntza arloan kualifikazioa hobetzeko** programak, ikasleen nazioarteko mugikortasunerako beken bitartez (Erasmus bekak) eta ikerketa arloan abiarazteko beken bitartez (Ikasiker bekak). | ▪ Erasmus beken programa garatzea 2019-2020 ikasturte akademikorako.<br>▪ Ikasiker beken programa garatzea 2019-2020 ikasturte akademikorako, euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeekin, Oinarrizko Ikerketako eta Bikaintasuneko Zentroekin (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuekin (ISI) eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroekin (IKZ) lankidetzan. |
| Gazteentzako esperientziako programak **esparru zehatzetan;** adibidez, kanpoko ekintzan, garapenerako lankidetzan eta ikerketan. | ▪ 42 gazteri esperientzia praktikoa ematea, kanpoko ekintzako eta garapenerako lankidetzaren esparruko espezializazio-beken bitartez.<br>▪ Berrikertu programa garatzea, enpresetan ikertzaileak eta ZTBES sareko eragileak kontratatzen laguntzekoa (programa horretan 47 gaztek hartu dute parte), eta Bikaintek programa garatzea, doktorego industrialei laguntzeko eta ikertzaileak sartzeko (programa horretan 45 gaztek parte hartu dute). |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 500 gazteri atzerriko esperientzia-programetan parte hartzen laguntzea | ▪ 97 pertsonek hartu dute parte Beint programan (52 gizon eta 45 emakume)<br>▪ 393 pertsonek hartu dute parte Global Training programan (157 gizon eta 236 emakume) | ▪ Parte hartzeko aurreikusitako pertsonen %98 |
| 22 gazteren enplegagarritasuna hobetzea, sektore jakinetako ikerketa-proiektuetan parte hartuz (ikertzaile eta teknologo gazteentzako bekak) | ▪ 21 pertsonek parte hartu dute Ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko programetan (9 gizon eta 12 emakume) | ▪ Aurreikusitako gazteen %95 |
| Hezkuntza-arloan, 1.575 gazteren prestakuntza hobetzea, nazioarteko mugikortasun-programetan edo ikerketa-lankidetzarako proiektuetan parte hartuz | ▪ 2.192 pertsonek parte hartu dute unibertsitateko nazioarteko mugikortasun-programetan, Erasmus bekaren bitartez (882 gizon eta 1.247 emakume)<br>▪ 145 pertsonek parte hartu dute unibertsitate-esparruko ikerketa-proiektuetan, Ikasiker bekaren bitartez (73 gizon eta 72 emakume) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%44 gainetik). |
| Atzerrian finkatutako euskal enpresen lankidetza sustatzea, gazteei atzerriko esperientzia-programetan harrera egiteko | ▪ 32 euskal enpresak hartu dute parte BEINT nazioartekotze-beken programan, laguntzaile gisa<br>▪ Aurreko urtearekin konparatuta, %8,5 gutxiago da (35 euskal enpresa 2018an) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren azpitik bete da (-%8,5) |
| 12 gazteri esperientzia praktikoa ematea, kanpo-harremanen eta garapenerako lankidetzaren esparruko espezializazio-programen bidez | ▪ 12 pertsonek parte hartu dute kanpoko ekintzako espezializazio-beketan<br>▪ 4 pertsonek parte hartu dute kanpoko ekintzako prestakuntza-beketan<br>▪ 26 pertsonek parte hartu dute garapenerako lankidetzaren arloko beketan | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%350) |

## 3.8. JARDUERA-ILDOA. PRESTAKUNTZA DUALA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Lanbide-heziketaren esparruan prestakuntza dualaren** eredua sustatzea, eredu dualean eskainitako zikloen eta espezialitateen mugak zabalduz, eta ikastetxeen parte-hartzea sustatuz. | ▪ Eredu dualerako irakasle espezifikoak lortzen laguntzea.<br>▪ Enpresei aholkularitza eta laguntza ematea, prestakuntza dualaren ereduan parte har dezaten sustatzeko.<br>▪ Gero eta parte-hartze handiagoa prestakuntza dualaren ereduan; 104 ikastetxetan, 1.435 enpresatan eta 2.639 ikasletan gauzatu da 2019-2020 ikasturtean. |
| Unibertsitate-esparruan eredu duala ezartzen aurrerapenak egitea, **unibertsitate-tituluak prestakuntza dual moduan egiaztatzeko sistema** bat diseinatuz, Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziarekin batera lankidetzan garatua. | ▪ 2018arekin konparatuta, 12 unibertsitate-titulazio gehiagok lortu dute Graduko eta Graduondoko aipamen duala.<br>▪ Aurrerakada Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioarekin izandako harremanetan, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua unibertsitateko prestakuntza dualaren eremura egokitzeari dagokionez.<br>▪ Goi Mailako Lanbide Heziketaren eta Graduko unibertsitate-titulazioen artean kredituak onartzea. |
| Unibertsitate- eta enpresa-eremuen arteko erlazioa sustatzeko jarduera osagarriak garatzea, **Unibertsitatea-Enpresa Estrategia** diseinatzeko eta abian jartzeko esparruan. | ▪ Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko Lan Taldea finkatzea, Unibertsitatea-Enpresa esparruan eta Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako Euskadiko Unibertsitate Prestakuntzako 4Gune klusterra finkatzea.<br>▪ Unibertsitate-Enpresa Gela finkatzea AICn (Automotive Intelligence Center).<br>▪ Aurrerakada Unibertsitatea-Enpresa titulazioen maparen garapenean.<br>▪ Aurrerakada Unibertsitate-Enpresako ikasleen mugikortasun-programa zabaltzen. |



| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Lanbide Heziketako ikasleen lan-esperientziaren egiaztapena poliki-poliki handitzen joatea, 2020-2021 ikasturterako, Lanbide Heziketako ikasleen %50ek esperientzia hori egiaztatuta izan dezaten, Lanbide Heziketa Duala lehenetsita | ▪ 2.639 ikasleen Lanbide Heziketa Dualean<br>▪ Gazteen %27 eredu dualean ikasten Lanbide Heziketako espezialitate industrialetan eta %9 zerbitzuetan<br>▪ Lanbide Heziketako eredu dualeko erdi-mailako 33 gradu, goi-mailako 55 gradu eta oinarrizko mailako 6 gradu<br>▪ Graduen %68, sare publiko edo itunduko ikastetxe batzuetan eredu dualean eskaintzen direnak | ▪ Aurreikusitako ikasleen ia erdiak |
| Eredu duala unibertsitateko heziketan poliki-poliki zabaltzen joatea, eta gutxienez 30 unibertsitate-gradu eta -masterretako 800 ikaslerengana iristea 2019-2020 ikasturtean | ▪ 1,109 ikasle euskal unibertsitate-sarean dualaren aipamena duten graduak eta masterrak ikasten ari dira<br>▪ Euskal unibertsitate-sarean dualaren aipamena duten graduak edo masterrak ikasten ari diren gazteen urteko %1,89 (unibertsitateko gradu eta master guztiekin konparatuta)<br>▪ 36 graduk eta masterrek jaso dualaren aipamena euskal unibertsitate-sareko ikastetxeren batean (24 gradu eta master 2018an + 12 gradu eta master 2019an)<br>▪ Graduen eta masterren %9,5ek lortu dute dualaren aipamena euskal unibertsitate-sareko ikastetxeren batean (unibertsitateko gradu eta master guztiekin konparatuta) | ▪ Helburuak aurreikusitakoaren gainetik bete dira; ikasleen helburuak %38 gainetik bete dira, eta dualaren aipamena jaso duten graduen eta masterren helburu, %20 gainetik |

## 3.9. JARDUERA-ILDOA. GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Gazteentzako **prestakuntza-ekintza orokorrak** garatzea, enplegurako prestakuntzaren esparruan. | ▪ Uztailean 2018-2020 enplegurako prestakuntzarako deialdia argitaratu zen (ikusi 4.1 Jarduera Ildoa, Langabeen Prestakuntza).<br>▪ Ekintza positiboko neurriak sartzea, 30 urte arteko gazteak lehentasunezko kolektibotzat hartuta, emakumeak bezala, gutxienez langabe guztiekiko proportzio berean. |
| Kualifikazio apaleko gazte langabetuak gizarteratzeko eta laneratzeko **prestakuntza-ekintza espezifikoak** garatzea | ▪ Programaren bigarren deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Programaren ezaugarriei eustea, ikaskuntza-ibilbideak sortzea errazteko ahaleginak eginez oinarrizko mailako gaitasun sozio-pertsonaletan eta tekniko-profesionaletan, kualifikazio apaleko gazteen garapen pertsonala eta gizarteratzea eta laneratzea errazteko, bai eta 2. mailako ziurtagirietarako sarbidea izateko ere. |
| Lanbide-heziketako ikasleei eta langabe gazteei zuzendutako **Hezibi, txandakatzean oinarritutako lanbide-heziketako** programa, beren gaitasunak hobetu ditzaten. Horretarako, profesionaltasun-ziurtagiri bat edo lanbide-heziketako titulu bat eskuratzen dute, enpresan ordainpean egiten duten lan-jarduerarekin txandakatuta. | ▪ Programaren urteko diru-zuzkidura maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Lanbide Heziketako zikloetan txandakako prestakuntza eta ikaskuntza jasotzeko kontratuen garapenari laguntzea. Oro har, kontratuek urtebeteko iraunaldia izan dute eta lanaldi osokoak izan dira. |



| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 5.000 gazteren gaikuntza sustatzea, enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartuz (4.1 eta 4.2 jarduera-ildoetan zehaztutako ekintzetan parte hartu duten gazteen artean zenbatuta) | ▪ 7.849 gazteri prestakuntza eman zaie, enplegurako prestakuntza-ekintzen bitartez (4.945 gizon eta 2.904 emakume) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%57 gainetik). |
| Prestakuntza baxua duten eta hasierako edo araututako lanbide-heziketara sartu ezin duten 195 gazteren prestakuntza ahalbidetzea. Helburua da lan-munduan sar daitezen ahalbidetzea eta bizi-proiektu bat garatzea ahalbidetuko dieten gaitasun profesionalak eta pertsonalak ematea | ▪ 195 gaztek hartu dute parte prestakuntza apala duten gazteentzako prestakuntza-programa espezifikoan<br>▪ 13 prestakuntza-proiektu onartu dira | ▪ Aurreikusitako helburua bete da (%100). Kontuan hartu behar da prestakuntza-ekintzak 2020ko urtarrilean hasten direla |
| Prestakuntza eta ikaskuntza eta lanbide-heziketako zikloak eta profesionaltasun-ziurtagiriak txandakatzeko kontratuen garapenari laguntzea | ▪ 800 gaztek parte hartu dute Hezibi programan (estimazioa: 600 gizon eta 200 emakume) | ▪ Ez da aplikatzen; izan ere, 2019 Plan Operatiboak ez zuen helburu kuantitatibo espezifikorik planteatzen |

## 4. esparru operatiboa

# ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

## 4.1. JARDUERA-ILDOA. LANGABEEN PRESTAKUNTZA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Enplegurako Lanbide Prestakuntzaren esparruan, **prestakuntza-ekintzak** garatzea, batik bat lanik gabe dauden pertsonak birgaitzea errazteko, lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazioekin eta gaitasunekin lerrokatuta. | ▪ Urtean bitan egiten den 2018-2020ko prestakuntza-ekintzen garapenerako laguntzen deialdia exekutatzea, Enplegurako Lanbide Prestakuntzaren esparruan.<br>▪ Hezkuntza Sailarekin egindako kudeaketa-aginduko akordioa exekutatzea, ekintza orokorrak edo arruntak emateko, eta lehen sektorearen esparruan ekintzak garatzeko, bai eta Haziri egindako aginduarenak ere, horiek ere lehen sektorearen esparruan. |
| Enplegurako prestakuntzako **ekintza berritzaileak** garatzea, sektore zehatz batzuetako prestakuntza-proiektuen bitartez, enpresen eskaera zehatzei erantzuteko, osagai tekniko eta teknologiko altua duten profesionalen profiletan. | ▪ Automobilgintzaren sektoreko prestakuntza-proiektua, bikaintasuneko ikastetxe bat garatzeko eta ezartzeko esparruaren barruan, konplexutasun tekniko eta teknologiko altuko ahalmenak eta gaitasun profesionalak dituzten profesional espezializatu eta kualifikatuei dagokienez autoen industriak duen behar orokorrari erantzuteko. |
| Enplegurako ekintzak eta **orientazio**-zerbitzuak garatzea, prestakuntza laneratze-ibilbide integralak diseinatzeko prozesuaren partetzat hartuta. | ▪ 2018ko abenduan, deialdi bakar bat argitaratu zen, lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko laguntzak emateko oinarri arautzailea ezartzen duena, 2019-2021 ekitaldietan exekutatu beharrekoa, 3 jarduera-ildoren bitartez: Lanbideren erabiltzaileak diren pertsonei zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak; desabantaila-egoeran dauden pertsonei zuzendutako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak; eta Enplegu Guneen jarduerari laguntzea.<br>▪ 53.735 pertsonari eman zaie arreta, orientazio orokorreko erakunde laguntzaileen bitartez (18.886 emakume eta 18.148 gizon) eta Enplegu Guneen bitartez (8.007 emakume eta 8.694 gizon). |
| **Enplegura-anezkak** abian jartzea, langabeen zeharkako gaitasunak eta gaitasun pertsonalak hobetuz, haiei laneratzen laguntzeko tresna gisa | ▪ Araban 3 enplegu-anezka abian jartzea, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Langabezian dauden 23.000 pertsonaren gaikuntza eta prestakuntza ahalbidetzea, lan-merkatuko beharretara egokitutako enplegurako prestakuntza-ekintzen bitartez | ▪ 19.594 langaberi (11.170 gizon eta 8.424 emakume) eman zaie prestakuntza guztira, enplegurako prestakuntza-ekintzen bitartez, honela banatuta: 30 urtetik gorako 11.745 pertsona (6.225 gizon eta 5.520 emakume) eta 7.849 gazte (4.945 gizon eta 2.904 emakume) | ▪ Aurreikusitako pertsonen %85. Kontuan hartu behar da 23.000 pertsonako helburuak parte-hartzaile guztiak hartzen dituela barruan, gazteak barne (3.9. jarduera-ildoa, Gazteen Enplegurako Prestakuntza) |
| 2.400 langaberen enplegagarritasuna hobetzea, prestakuntza eta enpleguko berrikuntzarako ekintza integralen bitartez | ▪ 427 langabek parte hartu dute prestakuntza eta enpleguko berrikuntzarako ekintza integraletan (316 gizon eta 111 emakume) | ▪ Aurreikusitako pertsonen %18 |
| Enplegurako orientazio-ekintzen eta orientazio-zerbitzuen garapena erraztea, prestakuntza laneratze-ibilbide integralak diseinatzeko prozesuaren partetzat hartuta | ▪ 53.735 pertsonari eman zaie arreta, orientazioko erakunde laguntzaileen eta Enplegu Guneen bitartez (26.842 gizon eta 26.893 emakume) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Langabeen zeharkako gaitasunak eta gaitasun pertsonalak hobetzea, baita haien enplegagarritasuna ere. Horretarako, enplegu-anezken bidez, lan-merkatura sartzeko prozesuan lagunduko zaie | ▪ 60 pertsonek parte hartu dute enplegu-anezketan (estimazioa)<br>▪ 3 enplegu-anezka | ▪ Ez da aplikatzen |

## 4.2. JARDUERA-ILDOA. KONTRATAZIO KONPROMISODUN PRESTAKUNTZA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Enpresek **prestakuntza-ekintza espezifikoak** garatzea, gutxienez parte hartzen duten pertsonen erdia **kontratatzeko konpromisoa** hartuta. | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Prestakuntza-ekintza espezifikoak garatzea, kualifikazio espezifiko osagarri bat eskatzen duten profil profesional jakin batzuen beharrak betetzeko, enpresetan lanean has daitezen.<br>▪ Parte hartzen duten pertsonen %50 gutxienez lanaldi osoan gutxienez 6 hilabetez kontratatzeko konpromisoa, edo horren baliokidea, lanaldi partzialeko kontratua bada.<br>▪ Ekintzetarako emakumeak lehentasunezko kolektibo bat direla onartzea, gutxienez lanik gabe dauden pertsona guztiekiko proportzio berean parte har dezaten. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 700 langaberen enplegagarritasuna hobetzea, enpresen kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzen bidez | ▪ 576 pertsonek hartu dute parte kontratatzeko konpromisodun prestakuntza-ekintzetan (265 gizon eta 311 emakume)<br>▪ 288 pertsona kontratatu dira | ▪ Aurreikusitako pertsonen %82 |

## 4.3. JARDUERA-ILDOA. LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Prestakuntza-ekintzak eta sektoreetako prestakuntza-ekintzak** (zeharkako gaitasunak) **eta/edo sektoreen artekoak** (gaitasun espezifikoak) garatzea, landun pertsonen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera eta ekoizpenaren eta lanaren ingurunean izaten diren aldaketetara egokitzera bideratuak. | ▪ Urtean bitan egiten den 2018-2020ko prestakuntza-ekintzen garapenerako laguntzen deialdia exekutatzea, lana duten pertsonentzat.<br>▪ Lehentasunez lana duten pertsonei zuzenduta egiten diren prestakuntza-jarduerak exekutatzea; jarduera horiek Hezkuntza Sailarekin egindako kudeaketa-aginduetan daude jasota (izaera orokorreko ekintzak zein lehen sektorerako ekintza espezifikoak).<br>▪ Irailean argitaratu zen enpresek garatutako prestakuntza-ekintza estrategikoen deialdia; ekintza horiek prestakuntza hobaridunaren kreditua agortu duten enpresetako langileen prestakuntza espezifikoa osatzen dute. |
| Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez lortu dituzten gaitasun profesionalak egiazta ditzatela sustatzea, **gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren** bitartez. | ▪ Martxoan, sektore soziosanitariorako deialdi espezifiko bat argitaratu zen, 1.500 lanpostukoa, eta zenbait kualifikazio profesionaletako gaitasun-unitateak egiaztatzeko deialdi bat, 1.210 lanpostukoa.<br>▪ Egiaztapenak Egiaztagiri Partzial Metagarrietan (gaitasun-unitateak) edo Profesionaltasun Ziurtagiri oso batean gauzatzea. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 40.000 langileren enplegagarritasuna hobetzea, enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea sustatuz (urtean zehar parte hartuko duten pertsonen batura kontuan hartuta) | ▪ 61.152 langilek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan (28.130 gizon eta 33.022 emakume) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%52 gainetik) |
| 3.000 pertsonek lan-esperientziaren edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez lortu dituzten gaitasunak egiazta ditzatela sustatzea. | ▪ 974 pertsonek gaitasunak egiaztatu dituzte gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurarako deialdien bidez (662 gizon eta 312 emakume) | ▪ Aurreikusitako pertsonen %33 |

5. esparru operatiboa

# LANERATZEKO PIZGARRIAK

## 5.1. JARDUERA-ILDOA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Langabeen enplegagarritasuna hobetzea eta haien kontratazioa sustatzea, **Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen** bitartez. Horietan sartzen dira tokiko erakundeek egiten duten enplegua sustatzeko jardueren garapena, tokiko enpresek kontrataziorako pizgarriak egitea eta tokiko enpresa-proiektu estrategikoen garapena | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen.<br>▪ Guztira 2.576 pertsona kontratatzen laguntzea, enplegua sustatzeko jardueren bitartez, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko, 3 eta 6 hilabete arteko iraupena duten kontratuen bitartez, eta tokiko enpresen kontratazioen bitartez, kontratu horien iraupena gutxienez 3 hilabetekoa izanik.<br>▪ Lau eskaera jaso dira, eskatutako baldintzak bete dituzten oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko tokiko enpresa pribatuen enpresa-proiektu berriak edo hedapen-proiektuak finantzatzeko.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, kontratatutako emakumeen kopurua kontratatutako pertsona guztien %40 izanik, gutxienez. |
| Langabeen enplegagarritasuna hobetzea eta haien kontratazioa sustatzea, **desabantaila-egoeran dauden eremuei eta udalerriei zuzendutako Tokiko Enplegua Sustatzeko Ekintzen** bitartez. | ▪ Laguntzak ematea Europar Batasunak eremu behartsu gisa katalogatutako tokiko erakundeei, bai eta 2019an langabezia-tasa altuak dituzten eremuei ere, bizkortze ekonomikoa lortzen eta enplegua sortzen laguntzen duten proiektuei laguntza emateko, jarduketaren xede den eremuan.<br>▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Guztira 981 pertsona kontratatzen laguntzea, tokiko erakundeek enplegua sustatzeko jarduerak eginez eta enpresek kontrataziorako laguntzak emanez.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, kontratatutako emakumeen kopurua kontratatutako pertsona guztien %40 izanik, gutxienez. |



| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 2.500 langabe lan-munduan sar daitezela sustatzea, Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez | ▪ 2.576 pertsona kontratatu dira, Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bitartez (%44 gizonak eta %56 emakumeak) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%3 gainetik). |
| Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planean bidez lortutako inpaktuaren ebaluazioa egitea | ▪ Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen urteko ebaluazioak egitea: Ez | ▪ Ez da aplikatzen |
| 1.000 langabe lan-munduan sar daitezela sustatzea, egoera ahulagoan dauden guneetara eta udalerrietara zuzendutako enpleguaren sustapenerako tokiko ekintzen bidez | ▪ Tokiko erakundeek eta egoera ahulagoan dauden udalerriek 981 pertsona kontratatu dituzte (%44 gizonak eta %56 emakumeak) | ▪ Aurreikusitako pertsonen %98 |

## 5.2. JARDUERA-ILDOA. EGOERA AHULEKO EDO ENPLEGAGARRITASUN TXIKIAGOKO KOLEKTIBOAK LANERATZEKO PIZGARRIAK

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Enplegagarritasuna hobetzeko proiektuak garatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonei zuzendutako **prestakuntza-jarduera integralak eta lan-aktibaziokoak** barne hartzen dituztenak (**proiektu bereziak**). | ▪ Programaren hirugarren deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Laguntza ematea prestakuntza-ekintzak, esperientzia praktikoa, laneratzeko laguntza, orientazioa, banakako laguntza eta enplegagarritasuna eta laneratzea hobetzeko beste neurri batzuk konbinatzen dituzten proiektuei. Kolektibo onuraduna gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak handienak dituzten pertsonak dira, eta behar espezifikoak dituzten pertsona landunak, lan-merkatuan jarraitu dezaten bermatzeko. |
| Enpresek **luzaroan langabezian dauden 30 urtetik gorako pertsonak kontratatu ditzaten** sustatzea, lan-merkatuan sartzea errazteko neurri moduan. | ▪ Ezaugarri horiek dituen programa baten lehen deialdia 2019ko irailean egin zen, luzaroan langabezian dauden 30 urtetik gorako pertsonen kontratazioa sustatzera bideratuta, pertsona horiek azken 540 egunetatik gutxienez 360 egunetan enplegu-eskatzaile gisa izena emandako pertsona langabeak izanik.<br>▪ Enpresei kontratu mugagabeak edo aldi baterakoak egiten laguntzea, gutxienez 6 hilabeteko iraupena dutenak, lanaldi osokoak edo %70 edo gehiagoko lanaldi partzialekoak izanik. Dirulaguntzen zenbatekoa kontratuaren iraupenaren eta kontratatutako pertsonaren titulazio-mailaren araberakoa da.<br>▪ Dirulaguntzen zenbatekoa handitzea, 45 urtetik gorako pertsonak edo emakumeak (%15eko osagarria) kontratatzeagatik, eta/edo kontratatzeko konpromisodun prestakuntza-ekintzak bukatu izanagatik (%10). Kontratatu beharreko bi kolektibo horietakoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa %20 handituko da.<br>▪ Lehen deialdian 30 eskaera jaso dira, eta horietatik 15 onartu dira (8 eskaera 45 urtetik gorako pertsonenak izan dira). Eskaerak jasotzen gehieneko epea 2 hilabetekoa izan da, eta ukapen gehienen arrazoia izan da kontratazioa diruz laguntzeko alditik kanpo egin izana.<br>▪ Eskaera-epea luzatzeko beharra eta hedapen-kanpaina indartzeko beharra identifikatzea, etorkizuneko deialdietarako. |
| Enplegagarritasun txikieneko kolektiboak enpresako langileen plantillan sartzeko pizgarriak ematea, **45 urtetik gorako langabeak barneratuko dituzten txanda-kontratuak** bultzatzeko programa baten bitartez. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Errelebo-kontratuen laguntza-programaren ezaugarri orokorrei eustea, eta 45 urtetik gorako langabeak kolektibo onuradun moduan sartzea 2019an. Kolektibo horri laguntzen jarraitzea aurreikusten da, programaren etorkizuneko deialdietan.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa % 10 handituz, emakumeak kontratatzen badira. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten 1.200 pertsonari horretan laguntzea, prestakuntza eta lan-aktibazioko ekintza integralen bidez (proiektu bereziak) | ▪ 1.238 pertsonek parte hartu dute proiektu berezietan (696 gizon eta 542 emakume)<br>▪ Proiektu berezietan parte hartu duten pertsonen laneratzea %28koa (346 pertsona) izan da (estimazioa). | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%3 gainetik). |
| Luzaroan langabezian dauden 30 urtetik gorako pertsonei lan-munduan sartzen laguntzea, sektore pribatuan kontratatu ditzatela lortuz | ▪ Luzaroan langabezian egon diren 15 pertsona kontratatu dira (8 gizon eta 7 emakume)<br>▪ 15 enpresa onuradun | ▪ Helburu hori ez zegoen espresuki kuantifikatuta 2019ko Plan Operatiboaren definizioan. Horregatik, helburu hori betetzeari buruzko balorazioa 2020tik aurrera sartuko da |
| Sektore pribatuan 45 urtetik gorako langabeak kontratatzeko pizgarriak ematea, sektore pribatuko errelebo-kontratuen edo kontratu osagarrien bidez | ▪ 45 urtetik gorako 31 pertsona kontratatu dira errelebo-kontratuen bitartez (21 gizon eta 10 emakume)<br>▪ Pertsona bat kontratatu da, kontratu osagarriaren bitartez (Gizon bat) | ▪ Helburu hori ez zegoen espresuki kuantifikatuta 2019ko Plan Operatiboaren definizioan. Horregatik, helburu hori betetzeari buruzko balorazioa 2020tik aurrera sartuko da |
| Laguntzarako ekintza integraletan parte hartzen duten eta bazterketa-egoeran, bazterketa-arriskuan edo ahultasun-egoeran dauden pertsonen % 10 lan-merkatuan sar dadila lortzea, laguntza-prozesuen ondoren | ▪ DSBEren onuradunak diren pertsonen %12k laguntza- eta aktibazio-ekintzetan parte hartu dute, eta laguntza-prozesuen ondoren lan-munduan sartu dira (eskuragarri dagoen azken datua 2018koa da) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%20 gainetik) |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Enplegu Zentro Berezien** jarduerari laguntza ematea, desgaitasunen bat duten pertsonei lanpostu batean hasteko, irauteko eta aurrera egiteko prozesua errazten dieten aldetik. | ▪ Martxoan, Enplegu Zentro Berezietan desgaitasunen bat duten pertsonen enpleguari eusteari buruzko deialdia argitaratu zen; eta 2018ko abenduan, lan-jarduerari laguntzeko unitateen dagokien deialdia argitaratu zen.<br>▪ Azaroan, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen dekretua argitaratu zen.<br>▪ 75 Enplegu Zentro Bereziren jarduerari laguntza ematea, 10.145 lanposturen bidez, eta 510 profesionalek osatutako 36 laguntza-unitateren jarduerari laguntza ematea (185 profil teknikokoak eta 325 arduradun eta arduradun-laguntzaile). |
| **Txertatzeko enpresen** jarduera sustatzea, bazterkeria-egoeran dauden pertsonei lan-merkatuan sartzen laguntzeko tresna den aldetik, gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko prozesu baten bitartez. | ▪ Deialdia 2018ko abenduan argitaratu zen, tramitazio aurreratuaren bitartez.<br>▪ 36 Txertatzeko Enpresaren jarduerari eta 699 lanposturi bere horretan eusten laguntzea, lanpostuak sortzeko eta horiei eusteko jarduerak bereziki bultzatuz, txertatze-prozesuetan jarduten duten pertsonei, ekoizpenari laguntzen aritzen diren teknikariei, eta txertatzen, aholkularitza teknikoa ematen eta prestakuntzan espezializatutako teknikariei dagozkien lanpostuetan.<br>▪ Halaber, txertatzeko enpresak sortzen laguntzea aurreikusten da deialdian, 2019an horrelako laguntzarik eman ez bada ere, baliabideak ahalik ondoen erabili behar izanagatik. |
| Desgaitasunen bat duten eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatuan txertatzea errazteko lan egiten duten erakundeetan integratutako **lagundutako enpleguen** unitateak sustatzea | ▪ Deialdia 2018ko abenduan argitaratu zen.<br>▪ Lagundutako enpleguaren metodologiaren bitartez, 77 pertsonari laneratzen laguntzea; horren bidez, desgaitasunen bat duten pertsonek lan-prestatzaileak dituzte eskura, eta haiek lan-merkatu arruntean sartzen eta beren enplegua sendotzen laguntzen diete.<br>▪ Programaren ezaugarriei eustea, aurreko urtearekin konparatuta.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa %10 handituz, desgaitasuna duen pertsona emakumea bada. |
| Desgaitasunen bat duten pertsonen lan-integrazioa, integrazio pertsonala eta gizarte-integrazioa sustatzea, **enpresa arruntek kontratu mugagabea** egiteko pizgarriak emanez, eta lanpostuak haien egoera fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzea erraztuz. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen.<br>▪ Desgaitasunak dituzten 78 pertsonari lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntza ematea.<br>▪ Programaren ezaugarriei eustea, aurreko urtearekin konparatuta.<br>▪ Azaroan, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegagarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen dekretua argitaratu zen. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Desgaitasunen bat duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen gaikuntza hobetzea, Enplegu Zentro Berezien eta laneratze-enpresen jarduerak babestuz, eta horietan 9.500 lanposturi eutsiz | ▪ 10.844 lanpostu Enplegu Zentro Berezien jardueretan (10.145) eta Laneratze Enpresetan (699); 6.947 gizonek eta 3.897 emakumek bete dituzte | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%14 gainetik) |
| Erraztasunak ematea desgaitasunen bat duten 200 pertsona merkatu arrunteko enpresetan sartzeko. | ▪ Desgaitasunen bat duten edo bazterketa-arriskuan dauden 155 pertsona kontratatu dituzte merkatu arrunteko enpresek (96 gizon eta 59 emakume) | ▪ Aurreikusitako pertsonen %77 |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Lana eta familia uztartzea sustatzeko** programa, enpresei laguntza zuzena emateko, lana eta familia uztartzeko neurriak (eszedentziak edo lanaldi-murrizketak) hartu nahi dituzten langileen ordezko pertsonak kontratatzea sustatzeko. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen.<br>▪ 467 enpresari laguntza ematea, eszedentziak edo jardunaldi-murrizketak betetzeko pertsona berriak kontratatzeko eta aurrez lanaldi partzialean kontratatuta zeuden langileen lanaldia handitzeko. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Lana eta familia uztartzeko neurrien erabilera sustatzeko, enpresen laguntzarekin 1.400 pertsona kontratatzeko pizgarriak ematea (urtean zehar parte hartuko duten pertsonen batura kontuan hartuta) | ▪ 1.497 pertsona kontratatu dira lana eta familia uztartzeko laguntzen bitartez (240 gizon eta 1.257 emakume)<br>▪ 467 enpresa kontziliazio-laguntzen onuradunak dira | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%7 gainetik). |

6. esparru operatiboa

# RENOVE BIRGAITZE PROGRAMAK

## 6.1. JARDUERA-ILDOA. RENOVE ETXEBIZITZA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Etxebizitzen eta eraikinen zaharberritze eraginkorra egiteko** laguntza-programa, bizigarritasuna, segurtasuna eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko, eta energia-kontsumoa murrizteko. | ▪ Deialdi irekia, ekitaldi osoan zehar, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eskatzeko, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, partikularrek eta jabeen komunitateek abiarazita, 11.196 etxebizitzatan eta 499 lokaletan (2.890 komunitateri dagozkienak) egindako lanei laguntza emateko, 19.541.737 €-ko dirulaguntzak eta babes daitekeen aurrekontua 552.613.654 €-koa izanik.<br>▪ Etxebizitzen eta eraginen birgaitze eraginkorra egiteko itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen deialdia argitaratzea, eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko, 541 etxebizitzatan egindako lanei laguntza emanez 24 komunitatetan, dirulaguntzen bolumena 6.400.000 €-koa (urte-aniztasuna: 2019/2022) eta aurrekontu babesgarria 16.329.333 €-koa izanik. |
| Zaharberritze-jardueren laguntza-programa, **hiri-ingurunearen eta eremu publikoen irisgarritasuna hobetzera** zuzendua, bai eta hirigintza- eta gizarte-izaerako arazo bereziak dituzten guneetan urbanizatutako eta eraikitako ondarearen birgaitze-jarduerak egitera ere. | ▪ Eraikinen hiri-ingurunean irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko, udalentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen deialdia argitaratzea.<br>▪ Deialdia urtearen amaiera aldera egin zen; proiektuak aztertzeko fasean dago. 199 proiektu aurkeztu dira, eremu publikoen irisgarritasuna hobetzeko eta arazoak edo gizarte-arazoak dituzten eremuetan birgaitze-planak garatzeko; dirulaguntzen bolumena 6.000.000 €-koa da (urte anitzekoa: 2019/2021). |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Birgaikuntzaren azpisektorean 3.500 enplegu sortzen edo sendotzen laguntzea, etxebizitza eta eraikinen birgaitze-lanak sustatuz. | ▪ 538.942.987 € etxebizitza babestuak birgaitzera bideratuta (31.941.737 €-ko inbertsio publikoa + 507.001.250 €-ko inbertsio pribatua)<br>▪ 5.795 lanpostu sortu dira birgaitze-jardueren ondorioz (Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz sortu diren lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen zenbatespenaren bidez kalkulatuta) | ▪ Enpleguaren helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da. Kontuan hartu behar da lanpostuak estimatzeko aplikatutako biderkatzailea eguneratu egin dela: 7,97tik 13,9ra pasatu da inbertsio pribatuko milioi bakoitzeko. |
| Eraikuntzaren sektorean jardungo duten 1.000 enpresa-establezimendu berri sortzen laguntzea, birgaikuntzaren azpisektoreko jarduera eta enplegua areagotzearen funtsezko emaitza gisa | ▪ 193 enpresa-establezimendu saldo garbi orokorrekoak (+%1,12 eraikuntza eta higiezinen jarduerak; +%0,95 eraikuntza + %2,28 higiezinen jarduerak) (Enpresa-demografia. Eustat) | ▪ Aurreikusitako establezimenduen %19. Esan beharra dago aurreikusitako helburua gehiegizkoa zela, eta batez beste 300 establezimendu hartu dira 2020 Plan Operatiborako |
| Birgaitze-lanen balio ekonomikoa bizilekuen eraikuntzaren azpisektoreko lanen % 30era irits dadila lortzea | ▪ Birgaitze-lanen lizentzia-kopuruaren ehunekoaren pisua etxebizitzetan lan handiak egiteko lizentzia guztiekiko: %84,2 (691 lizentzia birgaitze-lanak egiteko) | ▪ Adierazlea eskura dagoen informazioaren arabera birformulatu da (hasieran, “birgaitze-lanen fakturazioaren ehunekoaren pisu” gisa definitu zen, baina informazio hori eskuratzea oso zaila da) |
| Birgaikuntza jasangarria sustatzea, horretarako 20 etxebizitzatan proiektu pilotu bat gauzatuz, birgaitze-ekintzen bidez kolektibo ahulenek etxebizitza errazago lor dezaten (“masoveria urbana”) | ▪ Ez da aipatu proiektu pilotua egin | ▪ Ez da aplikatzen |

## 6.2. JARDUERA-ILDOA. RENOVE AZPIEGITURAK

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Izaera publikoko euskal **ikastetxeak hobetzeko** laguntza-programa, azpiegiturak egokitzean, berritzean eta/edo eskolatze-arrazoiak direla-eta handitu beharra dagoenean hautemandako beharrak betetzera bideratutako birgaitze-lanak sustatzeko. | ▪ Birgaitze- eta hobekuntza-lanak egitea 44 ikastetxetan; horrek esan nahi du aurreikusitako lanen %80 exekutatu edo izapidetu direla 2019an zehar.<br>▪ Lanen xedeak hauek izan dira batik bat: arkitektura-oztopoak kentzea, zenbait espazio eta instalazio zabaltzea eta eraberritzea (portxeak, estalpeak, jangelak eta sukaldeak, aldagelak, kirol-eremuak, instalazio elektrikoak...), suteen aurkako araudira eta eraikin berrien eraikuntzaren araudira egokituta. |
| **Euskal osasun-zentro publikoak hobetzeko** laguntza-programa, zentroetan birgaitze- eta zaharberritze-jarduerak egin daitezen sustatzeko, hautemandako beharren arabera. | ▪ Zenbait Osasun Zentrotan birgaitze- eta hobekuntza-lanak egitea: Santa Marina Ospitalearen ospitaleratze-planta erabat berritzea; Bretxako Arraindegia eraikina berritzea, Donostiako Alde Zaharreko Osasun Zentro berria egiteko; ospitaleko espazioa birmoldatzea, Gurutzetako Ospitaleko Terapia Metabolikoko Unitatea birkokatzeko; Debagoienako ospitaleko espazioa eta Arrasateko Osasun Zentrokoa birmoldatzea; Mendaroko Ospitaleko azpiegitura elektriko nagusia birmoldatzea; Murgiako Osasun Zentroaren eta Iralakoaren berritze-lanak hastea, eta Gorliz Ospitalaren fatxaden berritze-lanak.<br>▪ Osakidetzaren sareko zentroen azpiegiturak oro har hobetzea, irisgarritasun fisikoa hobetzeko 55 jardueraren bitartez (urbanizazioa, sarbideak eta barrualdeak egokitzeko 10 obra; ateak automatizatzeko edo aldatzeko 8; komunak egokitzeko 9; geletan sabaiko garabiak jartzeko 4 jarduera), eta 8 zentrotan 15 igogailu ezarriz. |
| **Industrialdeak, enpresa-parkeak eta jarduera ekonomikoko guneak**<br><br>**hobetzeko** laguntza-programa, instalazioen birgaitze- edo birmoldatze-jarduerak egitea sustatzeko, hautemandako beharren arabera. | ▪ Programa berria 2018an jarri zen abian, industrialdeak eta jarduera ekonomikoko guneak berritzen eta modernizatzen laguntzera bideratua, jarduerak eta lanak eginez energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan, eta eremu publikoak eta pribatuak berrurbanizatuz, leheneratuz, birgaituz eta hobetuz.<br>▪ Bigarren deialdia 2019an, bereizitako 2 laguntza-ildorekin: ohikoa eta Ezkerraldea, Meatzaldea eta Oarsoaldea Eskualdeen 2018-2019 Talka Planean sartutako udalerrietako jarduera ekonomikoko guneei buruzkoa.<br>▪ 64 eskaera jaso dira, eta horietatik 46 proiektu onartu dira. Onartutako proiektuetako 13 industrialdeetako, enpresa-parkeetako eta jarduera ekonomikoko guneetako azpiegiturak berritzen eta modernizatzen laguntzeko Talka Planaren Ildokoak izan dira. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enplegua sortu edo sendotu dadila sustatzea birgaikuntzaren azpisektorean, ikastetxe publikoetako birgaitze-lanen bitartez | ▪ 39.260.029 € bideratu dira Ikastetxeak birgaitzeko<br>▪ 313 lanpostu sortu dira ikastetxeetako birgaitze-lanen ondorioz (Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz sortu diren lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen zenbatespenaren bidez kalkulatuta) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Enplegua sortu edo sendotu dadila sustatzea birgaikuntzaren azpisektorean, osasun-zentro publikoetako birgaitze-lanen bitartez | ▪ 11.720.794 € bideratu dira osasun-zentroak birgaitzeko (finantzaketa publikoa eta pribatua barne)<br>▪ 93 lanpostu sortu dira osasun-zentroetako birgaitze-lanen ondorioz (Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz sortu diren lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen zenbatespenaren bidez kalkulatuta) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Enplegua sortu edo sendotu dadila sustatzea birgaikuntzaren azpisektorean, industrialdeetako, enpresa-parkeetako eta jarduera ekonomikoko eremuetako birgaitze-lanen bitartez | ▪ 6.267.904 € bideratu dira industrialdeetako birgaitze-lanak egiteko (onartutako aurrekontua)<br>▪ 50 lanpostu sortu dira osasun-zentroetako birgaitze-lanen ondorioz (Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz sortu diren lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen zenbatespenaren bidez kalkulatuta) | ▪ Ez da aplikatzen |

7. esparru operatiboa

# ENPLEGU PUBLIKOA

## 7.1. JARDUERA-ILDOA. ENPLEGU PUBLIKOA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza** onartzea, Euskal Administrazio Publiko osoan, Osasunaren, Hezkuntzaren, Segurtasunaren eta Administrazio Orokorraren arloetan. | ▪ Gobernu Kontseiluak, 2019ko abenduaren 17an, 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen, guztira 6.592 lanpostu eskainiz (6.482 lanpostu txanda irekikoak eta 110 barne-sustapenekoak).<br>▪ Lanpostuak 2020an zehar bete dira: 2.499 Hezkuntzan, 2.150 Osasunean, 900 Segurtasunean eta 1.043 Administrazio Orokorrean eta erakunde autonomoetan. Azken horietan hauek sartzen dira: 426 lanpostu goi-mailako erkidegokoak, 70 erdi-mailako erkidego teknikokoak, 130 administrarien kidegokoak, 350 laguntzaileen kidegokoak, 50 menpeko langileen kidegokoak eta 17 psikologoen kidegokoak.<br>▪ Ekintza positiboko neurriak sartzea, berdinketa hausteko irizpidetzat emakumeen alde egitea hartuta, emakumeen ordezkaritza %40tik beherakoa den kidegoetan eta eskaletan. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 5.860 pertsona laneratzeko babesa eskaintzea, euskal administrazio publikoan erretiratutako pertsonen lanpostuak ordezkatuz eta behin-behineko lanpostuak egonkortuz, Lan Eskaintza Publikoko (LEP) deialdien bidez | ▪ 6.592 lanpostu iragarri dira LEPetan (6.482 lanpostu txanda irekikoak eta 110 barne-sustapenekoak) | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%12 gainetik) |
| Zerbitzu publikoaren beharren eskariaren azterketa egiten jarraitzea | ▪ Lantaldeei, eztabaida publikoari zabaldutako azken egiaztatzeari eta abordatze kuantitatiboari dagozkien faseak garatu dira | ▪ Ez da aplikatzen |

8. esparru operatiboa

# ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA

## 8.1. JARDUERA-ILDOA. ELKARRIZKETA SOZIALA ETA BERTAN PARTE HARTZEA SUSTATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Elkarrizketa Sozialeko organo iraunkorra** sortzen aurrera egitea. Organo hori osatuko dute Eusko Jaurlaritzako kideez gain, erakunde sindikal eta enpresa-erakunde adierazgarrienek, baldin eta organoan eta era instituzionalean parte hartu nahi badute | ▪ Gobernu Kontseiluak urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretua onartu eta argitaratu zuen, Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzekoa. |
| **Sailen arteko koordinazioa** lan-harremanekin lotutako gaiak jorratzen dituzten sailen eta arloen artean. | ▪ Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin koordinatzen jarraitzea, industria 4.0rekin eta horrek langileengan dituen ondorioekin lotutako gaietan.<br>▪ Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatzen jarraitzea, familia eta lana uztartzeko esparruan, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian parte hartuz Haurren eta Familien aldeko IV. Planean, eta Lanbide berritzearen eta modernizatzearen esparruan.<br>▪ Emakumerekin koordinatzen jarraitzea, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiari Euskadiko Soldata Arrakala murrizteko Ekintzaren Estrategia eta Plan Operatiboaren barruan aurreikusitako neurriak egiteari eta exekutatzeari buruzko informazioa emateko.<br>▪ Hezkuntza Sailarekin koordinatzen jarraitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen lanak Elkarrizketa Sozialaren Mahaira eramateko. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Elkarrizketa Sozialaren Mahaia erreferentzia gisa sendotzea, euskal enplegu-politika sustatzeko beharrezkoa den adostasuna lortzeko tresna gisa | ▪ 5 lantalde osatu dira (Berdintasuna; Lan Osasuna; Industria; Enplegua; eta Lanbide Heziketa)<br>▪ Taldeen 23 bilera (6 Berdintasunekoak; 5 Lan Osasunekoak; 4 Industriakoak; 5 Enplegukoak; eta 3 Lanbide Heziketakoak) | ▪ Ez da aplikatzen |

## 8.2. JARDUERA-ILDOA. GIZARTE- ETA ENPRESA-ERANTZUKIZUNA SUSTATZEA ETA LANGILEEN PARTAIDETZA SUSTATZEA ENPRESAN

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Eusko Jaurlaritzako Sailen **barne-mailako enpresen gizarte-erantzukizunaren** integrazioa sustatzea, modu egituratuan. | ▪ Sailen barne-mailako solaskideak identifikatzea, enpresen gizarte-erantzukizunaren esparruan.<br>▪ Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Plan bat diseinatzea. |
| **Enpresen arteko gizarte-erantzukizuna** hedatzea, eta enpresa horietan neurketa- eta hobekuntza-neurriak ezartzen laguntzea. | ▪ Ekainean, enpresetan enpresen gizarte-erantzukizuna enpresetan hedatzeko eta ezartzeko laguntzen deialdia argitaratu zen.<br>▪ Enpresei laguntzea, jarduera-ildo hauen bitartez:<br>– Enpresaren gizarte-erantzukizuneko prestakuntza-metodologiak lantzea.<br>– Enpresen gizarte-erantzukizunak euskal gizartean bizi duen egoera ezagutzeko azterlanak, eta enpresen gizarte-erantzukizuna bultzatzeko azterlanak.<br>– Enpresen gizarte-erantzukizuna enpresetan ezartzea, iraunkortasun-memoriak eginez, GRI (Global Reporting Initiative) metodologiak, SGE21, ISO2300 edo antzekoak baliatuz.<br>– Enpresen Gizarte Erantzukizunaren kultura eremu publikoetan, enpresarialetan eta korporatiboetan zabaltzeko jarduerak. |
| Enpresetako kudeaketan eta kapitalean **langileen parte-hartzea** sustatzea. | ▪ Ekainean, landunek enpresetan eraginkorki parte hartzeko laguntzen deialdia argitaratu zen, erabaki-organoetan eta gizarte-kapitalaren finantza-esparruan (akzio-harpidetza, parte-hartze finantzarioko tresnak...) parte hartzea sustatzeko.<br>▪ Gizarte-ekonomiako enpresetan parte hartzeko laguntza, ildo hauetan:<br>– Metodo eta tresna egokiak garatu eta ezartzea, gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketan eta organoetan langileen parte-hartzea erraztu eta hobetzeko.<br>– Langileen parte-hartzea ezartzeko jardunbide egokiak zabaltzea.<br>▪ Gizarte-ekonomiakoak ez diren enpresetan parte hartzeko laguntza, ildo hauetan:<br>– Langileek parte hartzeko plan bat egitea eta ezartzea.<br>– Besteen konturako langileek akzioak edo partizipazioak harpidetzea.<br>– Langileen parte-hartzea errazten eta hobetzen duten araudien garapenak aztertzea.<br>– Langileen parte-hartzea ezartzeko jardunbide egokiak zabaltzea. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gobernantza publikoak enpresen gizarte-erantzukizuna modu egituratua integratzea, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Plan berri bat diseinatuz eta 2019ko Gobernu Kontseiluan onartuz | ▪ Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Plana onartzea: Ez | ▪ Ez da aplikatzen |
| Enpresen gizarte-erantzukizunaren sustapena koordinatzea Foru Aldundiekin eta tokiko erakundeekin, enpresen gizarte-erantzukizunaren erakundearteko euskal foro bat ezarriz | ▪ Enpresen gizarte-erantzukizunaren erakundearteko euskal foroa sortzea: Ez | ▪ Ez da aplikatzen |
| Euskal enpresen gizarte-erantzukizuna neurtu eta hobetzeko metodoak ezartzen laguntzea (bikaintasun-ereduak) | ▪ 7 enpresari eman zaie laguntza enpresen gizarte-erantzukizuneko bikaintasun-ereduak ezartzeko<br>▪ 500 lanposturi eman zaie laguntza enpresen gizarte-erantzukizuneko bikaintasun-ereduak ezartzeko (estimazioa) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Langileek enpresetako kudeaketan eta kapitalean parte hartzea sustatzea, kudeaketa-organoetan parte hartzeko tresnak eskainiz eta haiei enpresetan sozietateko partaidetza eskuratzen lagunduz | ▪ Langileek enpresetako kudeaketan eta erabaki-organoetan parte hartzeko plan bati eman zaio laguntza<br>▪ 4 langilek enpresetan sozietateko partaidetza eskuratzeko laguntzak jaso dituzte | ▪ Ez da aplikatzen |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Gizarte-ekonomiako prestakuntza sustatzea, hezkuntza-maila eta -esparru guztietan eta gizarte-ekonomiako enpresetan beretan **prestakuntza-ekintzak** eginez, haiek ordezkatzen dituzten erakundeen bidez. | ▪ Ekainean, gizarte-ekonomiako prestakuntzaren laguntza-programaren deialdia argitaratu zen.<br>▪ Kooperatibismoari eta lan-sozietateei buruz ikasten hasteko, perfekzionatzeko edo kualifikazioa lortzeko prestakuntza-ekintza espezifikoak garatzea, unibertsitateetan eta/edo sozietateetan. |
| Gizarte-ekonomiaren printzipioei eta balioei buruzko sentsibilizazioa, oro har gizarteari zuzendutako **hedapen-ekintzen** bitartez. | ▪ Ekainean, gizarte-ekonomiako prestakuntzaren laguntza-programaren deialdia argitaratu zen, eta bertan, hedapenari laguntzeko ildo espezifiko bat sartu da.<br>▪ Hedapen-jarduerak, kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldizkako argitalpenen bitartez; jardunaldi eta ekitaldi espezializatuak eginez; hedapen-jarduera orokorrak eginez, komunikabideak baliatuz (irratia, prentsa, telebista, Internet eta multimedia). |
| Gizarte-ekonomia bultzatzea eta sustatzea, eremu horretan **ikerketa-jarduera espezifikoak** eginez. | ▪ Ekainean, gizarte-ekonomiako prestakuntzaren laguntza-programaren deialdia argitaratu zen, eta 2019ko berritasun gisa, ikerketari laguntzeko ildo espezifiko bat sartu da.<br>▪ Gizarte-ekonomiako ikerketa-jarduera berritzaileak, gazteen eta ingurumenaren esparruak lehenesten dituena, eta unitate didaktikoak egitea, ikastetxeetan hedatzeko. |
| Gizarte-ekonomian **asoziazionismoa** sustatzeko programa, gizarte-ekonomiako enpresen elkarte-erakundeak indartuz. | ▪ Uztailean, gizarte-ekonomiako enpresen eta erakundeen elkarte-egiturak sendotzeko deialdia argitaratu zen.<br>▪ Gizarte-sozietateen eta kooperatiben erakunde asoziatiboei, izaera kofederaleko elkarte-erakundeei, ekonomiako solidarioko elkarte-erakundeei, enpleguko zentro berezien elkarteei eta langile autonomoen elkarteei laguntza ematen dien ingurune bat sor dadin sustatzea. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Unibertsitateko eta unibertsitate aurreko hezkuntza-sarean gizarte-ekonomiaren inguruko prestakuntza areagotzea | ▪ Unibertsitateko eta unibertsitate aurreko 500 ikaslek gizarte-ekonomiako prestakuntza-ekintzetan parte hartu dute (250 gizon eta 250 emakume) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Gizarte-ekonomiako prestakuntza areagotzea gizarte-ekonomiako enpresetan, beren elkarte-erakundeen bitartez | ▪ Gizarte-ekonomiako enpresetako 500 langileri eman zaie prestakuntza | ▪ Ez da aplikatzen |
| Gizarte-ekonomiaren presentzia indartzea euskal gizarte-ekonomiaren ezaugarriak dituzten erakundeen sarean, hedabideetan eta eztabaida-foroetan | ▪ Gizarte-ekonomia hedatzeko 21 jardunaldi egin dira | ▪ Ez da aplikatzen |
| Gizarte-ekonomiaren errealitatea gizarte orokorrari dibulgatzea eta hedatzea, argitalpen espezifikoen bidez | ▪ Gizarte-ekonomian espezializatutako 18 liburu eta aldizkari argitaratu dira | ▪ Ez da aplikatzen |
| Gizarte-ekonomiako gaietan ikerketa-jarduerak sustatzea | ▪ Laguntza jaso duten ikerketa-lanen kopurua (ez dago eskuragarri) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetza sendotzea, Euskadiko gizarte-ekonomia sustatzeko. Horretarako, gutxienez bi asmo- eta lankidetza-hitzarmen sinatuko dira euskal agintari publikoen eta euskal gizarte-ekonomiako erakunde, mugimendu kooperatibo eta lan-sozietate aipagarrienen artean | ▪ Ez da akordiorik sinatu | ▪ Ez da aplikatzen |
| Gizarte-ekonomiako enpresei halako enpresen kudeaketaren betekizun berrietara egokitzen laguntzea; horretarako, sektoreko erakunde aipagarrienek informazio- eta prestakuntza-jarduera espezifikoak egingo dituzte | ▪ 6 gizarte-sozietatetan gobernu korporatiboaren eredu berria ezarri da | ▪ Ez da aplikatzen |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31n | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gizarte-ekonomiaren arloko elkarteak sortzeko joera indartzea, gizarte-ekonomiako enpresetako elkarte-erakundeei beren horretan eusten lagunduz | ▪ 9 elkarte-erakunderi eman zaie laguntza | ▪ Ez da aplikatzen |

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Lan-iruzurraren aurkako borroka** indartzea, lan-zentroetan lan-baldintzei buruzko zaintza areagotuz eta ikuskaritza-zerbitzuak indartuz. | ▪ Lan-ikuskaritzako kanpainak areagotzea, giza baliabideak indartuz.<br>▪ Laneko Ikuskatzailetzaren plantilla osoan berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa indartzea, eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko kanpaina espezifikoak egiten jarraitzea: Berdintasun Planen kontrola eta Berdintasun Legearen beste betebehar batzuk; egoera diskriminatzaileen kontrola lan-harremanetan, oro har, eta, berariaz, soldata-arrakalaren gaian; Lan-arriskuen gaietako jarduerak genero-ikuspegitik (ostalaritzako etxebizitzetako zerbitzarien kanpaina nabarmenduz); eta sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatiko jazarpen diskriminatzailea.<br>▪ Berdintasunaren eremuan ekintza positiboko neurriak badaudela egiaztatzea, ikuskaritzako kanpaina orokor jakin batzuetan: kontratazioko iruzurraren aurkako kanpaina, bereziki aldi baterako eta lanaldi partzialeko iruzurrezko kontratazioen aurkakoa; eta lana eta familia uztartzeko eskubideei buruzko kanpaina. |
| **Lan-arriskuen prebentzioaren kultura** sustatzea, hauek biltzen dituzten denetariko dibulgazio-ekintzen bitartez: prestakuntza, kanpainak eta ekitaldiak antolatzea, eta komunikabideetan komunikazio-kanpainak egitea. | ▪ 25 elkarrizketa egin dira irratian, telebistan eta idatzizko prentsan, eta 15 prentsa-ohar argitaratu dira.<br>▪ Enpesei, prebentzio-ordezkariei eta prebentzio-erakundeetako eta administrazio publikoetako teknikariei zuzendutako 11 jardunaldi tekniko-dibulgatibo antolatzea eta garatzea.<br>▪ Sare sozialetan presentzia, Osalan eta Itxaspreben kanalen bitartez Youtuben, Facebooken eta Twitterren.<br>▪ Osalanek kongresu batean eta 6 jardunaldi tekniko-dibulgatibotan parte hartzea; ADI programan, Lanbide Heziketako ikasleen artean lan-arriskuen prebentzioa hedatzeko; eta Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko IX. ikastaroa antolatzea, EHUren udako ikastaroen barruan.<br>▪ Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko 2019-2025eko Euskadiko elikaduraren balio-katearen eta zuraren sektore-estrategia garatzea.<br>▪ “Segurtasuna eta osasuna lan duin baten oinarriak dira” kanpaina. |
| Ekintza dibulgatzaile espezifikoak garatzea **genero-ikuspegia lan-arriskuen prebentzioan integratzeko** | ▪ “Genero-ikuspegia eta ergonomia” kanpainari buruzko jardunaldia antolatzea; Emakundek eta Laneko Ikuskatzailetzak elkarrekin antolatutako “Lan-osasuna genero-ikuspegiarekin eta soldata-arrakala” gaiari buruzko jardunaldian parte hartzea; eta eremu horretako beste ekitaldi batzuetan parte hartzea.<br>▪ Genero-ikuspegia enpresetan sartzeko egin beharreko urratsei buruzko ikus-entzunezko materiala sortzea; eta lan-arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia sartzeko jarraibideei buruzko 8 orduko prestakuntza ematea, Galizako Osasun Zerbitzuak hala eskatuta.<br>▪ Osalanen berdintasun-politika zenbait forotan zabaltzea (Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko estatuko sarea, Hong Kongeko “Occupational Safety and Health Council”...); eta laneko segurtasuneko eta osasuneko berdintasunari buruzko informazioa hedatzea webgunean, sare sozialetan, Osalanen barne-buletina, dokumentazio-zentroko buletinean eta kanpoko newsletterrean. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Negoziazio kolektiboaren estaldura-tasa %75ekoa izatea 2020aren amaieran | ▪ 311.814 langilek hitzarmen kolektiboak dituzte indarrean (202.216 langilek luzatutako hitzarmen kolektiboak dituzte)<br>▪ Langileen%52k hitzarmen kolektiboak indarrean dituzte (langileen %33k hitzarmen kolektibo luzatuak dituzte) | ▪ Aurreikusitako estaldura-tasaren %69 bete da |
| Prebentzioko ordezkariek behar duten kualifikazioa izan dezatela bermatzea, urteko prestakuntza-ekintzen bidez | ▪ 1.783 prebentzio-ordezkari prestatu dira (1.243 gizon eta 540 emakume) | ▪ Ez da aplikatzen |
| Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutza sustatzea, enpresen lehiakortasuna hobetzeko | ▪ Urteko kontzientziazio-kanpainak egitea komunikabide orokorretan eta bitarteko espezifikoetan: Bai | ▪ Ez da aplikatzen |
| Lantokietako lan-baldintzen zaintza indartzea, lan-ikuskapenak eginez eta jarduketak %15 handituz 2018koekin konparatuta | ▪ Lantokietan 41.613 ikuskapen egin dira<br>▪ Ikuskapenak %0,17 igo dira 2018arekin konparatuta (41.542 ikuskapen) | ▪ Aurreikusitako ikuskapenen handitzearen %0,01 bete da |
| Kontratazioaren eta lan-denboraren arloko ikuskapen-kanpainen emaitzak hobetzea, 2020aren amaieran lanaldi partzialeko kontratuen % 100 berrikusita | ▪ 21.642 kontratu berrikusi dira<br>▪ Berrikusitako kontratuen % 30 bihurtu dira | ▪ Betetze-maila 2017-2020 aldiaren amaieran baloratuko da |
| Egindako ikuskapen-kanpainen emaitzak gizarte-eragileei eta gizarteari zabaltzea urtero | ▪ Ikuskapen-kanpainen emaitzak erregulartasunez zabaltzea: Bai | ▪ Ez da aplikatzen |
| Sindikatze-maila txikiak dituzten kolektiboen ikuskapenerako irispidea erraztea, Laneko Iruzurraren aurkako Herritarren Postontziaren bidez, eta beste komunikazio-bide batzuetara ere zabaltzea | ▪ 188 salaketa jaso dira (103 gizon eta 85 emakume)<br>▪ Telefono bidez eskuragarri izatea Laneko Iruzurraren aurkako Herritarren Postontzia: Bai | ▪ Ez da aplikatzen |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enpresa- eta gizarte-eragileak berdintasunaren arloan sentsibilizatzea, 250 langile baino gutxiagoko enpresetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak gara daitezen sustatzeko, negoziazio kolektiboaren bidez. | ▪ Erregistroan aurkeztutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planen kopurua. 2020tik aurrera kuantifikatuko da | ▪ Ez da aplikatzen |
| Urteko lan-plana definitzea, enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko (Emakunderekin sinatutako lankidetza-hitzarmenetik eratorritakoa) | ▪ Urteko lan-plana egitea, enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko. Bai | ▪ Ez da aplikatzen |

9. esparru operatiboa

# EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBEKUNTZA

## 9.1 LANBIDE ERABERRITZEA ETA MODERNIZATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Zerbitzuak ematea eta arreta-prozesuak** homogeneizatzea, eta baliabide pertsonalak antolatzea. | ▪ Arreta-eredu berri bat ezartzea 42 enplegu-bulegoetan; hau da, sare osoan.<br>▪ Herritarrentzako eta enpresentzako zerbitzuetako arreta-prozesuak homogeneizatzea, zereginak 2 arreta-mailatan antolatuz: administrariak (1. maila) eta teknikariak (2. maila). |
| Lanbide modernizatzera zuzendutako **laguntza-ekintzak** garatzea. | ▪ Enplegu-bulegoetan izapidetzen den dokumentazioaren erregistro digitalizatuan aurrera egitea. Erregistroa ezartzen amaitu da 30 bulegotan, eta 15etan ezartzen hasi da (lurralde-bulegoak ere kontuan hartuta).<br>▪ Idatzizko sinadura eskatzen duten agiri guztietan tablet gailuen bidezko sinadura digitalaren modalitatea ezartzea eta beren borondatez emandako datu biometrikoak jasotzea 10 bulegotan.<br>▪ Hitzorduen kudeatzaile berri bat sortzea, itxaroteen kudeatzailea integratuta duena. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 2019an zehar, Lanbideren bulego-sare osoan arreta-eredu berria ezartzen amaitzea. | ▪ 42 bulegotan ezarri da arreta-eredu berria<br>▪ Bulego-sare osoaren %100etan ezarri da arreta-eredu berria | ▪ Aurreikusitako helburua bete da (%100) |
| Enplegu-eskatzaileei laguntza integral eta pertsonalizatua ematea | ▪ 124.464 pertsonek parte hartu dute laneratze-ibilbide personalizatuetan (62.510 gizon eta 61.954 emakume)<br>▪ Langabe guztien %56k parte hartu dute laneratze-ibilbide pertsonalizatuetan | ▪ Ez da aplikatzen |
| Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa izatea | ▪ Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa garatzea: EZ | ▪ Ez da aplikatzen |
| Lankide publiko eta pribatuekin eta gizarte-zerbitzuekin dituen harremanetarako protokoloak sortzea | ▪ 190 eragilek protokoloa adostuta dute<br>▪ Esku hartzen duten eragileen %100 | ▪ Ez da aplikatzen |
| Lanbide zerbitzuaren bulego-eredu berria Lanbide bulegoen sare osora hedatzea | ▪ 40 bulego egokitu dira bulego-eredu berrira<br>▪ Sareko bulego guztien %95 egokitu dira bulego-eredu berrira | ▪ Ez da aplikatzen |
| Lanbideko programa eta zerbitzu guztietan erregistro digitalizatua ezartzea, Lanbideko bulegoen sare osoan | ▪ 45 bulegotan ezarri da erregistro digitalizatua (lurralde-bulegoak barne) | • Aurreikusitako bulegoen %70 |
| Lanbideko barne-ikastaroak online egiteko aukera ematea | ▪ 61 prestakuntza-ikastaro eman dira online modalitatean<br>▪ Guztira emandako prestakuntza-ikastaroen %58 online modalitatean eman dira<br>▪ Ez da ikastarorik eman modalitate mistoan (online eta aurrez aurre) | ▪ Ez da aplikatzen |



## 9.2. JARDUERA-ILDOA, ENPLEGU-ARLOKO BEHAKETA- ETA PROSPEKZIO-LANA HOBETZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| **Future Lan** prospektiba-tresna sendotzea, informazio- eta prospekzio-sistema integratu gisa. | ▪ Future Lanen ekonometria-eredua berrikusten jarraitzea, lan-merkatuaren erroldaren, Kontratuen Erregistroaren, demografia-proiekzioen, eta enplegu-eskariaren eta -eskaintzaren eraginen datu eguneratuak ereduan sartuz.<br>▪ Eskura dagoen informazioa 64 okupazio-taldetara handitzea.<br>▪ Prestakuntza-beharren arloan prospekzio-osagai berri bat sartzea, 25 lanbide-familiaren eta unibertsitateko 26 ikasketa-arloren proiekzioak eginez<br>▪ 2030eko enplegu-eskaeraren proiekzioak egitea<br>▪ Future Lanen zati kualitatiboa berrikusten jarraitzea, enpresa-talde sektorialei eta klusterrei inkestak egitea eta etorkizuna aurreratzeko txostenak dibulgatzea barne hartuta.<br>▪ Future Lanen webgunearen formatuan hobekuntzak egitea. |
| Prospekzio- eta alderatze-jarduerak garatzea, enpleguaren arloko **beste eragile aditu batzuekin lankidetzan**. | ▪ Millenium proiektuarekin jarraitzea; proiektu hori egoerak identifikatzeko metodologian oinarritzen da.<br>▪ Alderatzeak egitea, joerazko egoeretan garatu beharreko estrategiei buruzko bilerak eginez eskualdeko eragileekin, eta, berariaz, biztanleria aktiboaren zahartzearen joerak eta ekoizpenaren eta zerbitzuen automatizazioa kontuan hartuta. |
| Enplegu-gaietako estrategien eta politiken planifikazioan zaintzaren sistematikaren eta adimen estrategikoaren garrantzia bistaratzera bideratutako **sentsibilizazio**-jarduerak. | ▪ Lanbide Heziketaren V. Planaren laguntza-tresnen garapenean parte hartzea, lanbide-arloen prestakuntza-beharren proiekzioen esparruan.<br>▪ SPRIrekin batera parte hartzea, sektoreko klusterrekin eta enpresa-taldeekin lankidetzan, informazio prospektibo kuantitatiboa eta kualitatiboa trukatzeko.<br>▪ Kongresuetan, foroetan eta ekitaldietan parte hartzea, Future lan zerbitzua hedatzen. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enpleguaren arloko behaketa- eta prospekzio-lana sustatzea, Future Lan tresna etengabe hobetzearen bidez | ▪ Future Lan eredu eta tresnarako ezarritako datu kuantitatiboen urteko azterketak egitea: BAI | ▪ Ez da aplikatzen |
| 62 talde okupazionaletarako informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa duten deskribapen-fitxak egitea eta argitaratzea | ▪ 64 fitxa okupazional argitaratu dira | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%3 gainetik) |
| Etorkizuneko osagai berri bat garatzea prestakuntza-beharren eremuan, balio kuantitatiboak kontuan hartuta, lanbide-heziketako eta unibertsitateko sailkapen-estandarren arabera | ▪ Etorkizuneko osagaia prestakuntza-beharren eremuan sartzea: BAI | ▪ Ez da aplikatzen |
| Prospekzio- eta alderatze-ekintza gehiago egitea, enpleguaren arloko beste eragile aditu batzuekin lankidetzan | ▪ Benchmarking-txosten bat eta EAEra egokitutako Millenium proiektuaren emaitzak | ▪ Ez da aplikatzen |
| Lanbidek eta lurralde- eta/edo sektore-mailako beste eragile garrantzitsu batzuek egindako lan prospektiboaren emaitzak zabaltzea, lan-merkatuko eragile garrantzitsu guztiek ezagut ditzaten enplegu-joerak eta -aukerak, haiekin bat datozen estrategiak eta planak definitu eta planifikatzeko. | ▪ Prospekzio-lanaren emaitzen urteko hedapena: BAI | ▪ Ez da aplikatzen |
| Enpresa-ekimen berriak (merkatukoak eta gizarte-izaerakoak) sortzeko aprobetxa daitezkeen aukerak identifikatu eta zabaltzearekin lotutako ildo espezifikoa eguneratuta izatea. | ▪ Future Lan tresnaren zati gisa aukerak identifikatu eta zabaltzeko ildoa eguneratzea: Bai | ▪ Ez da aplikatzen |
| Biztanleria aktiboaren zahartze-prozesuaren ondorioen berri ematea, lan-merkatuko enplegu-saldo garbiei dagokienez, haien osagaietan ordezkapen-enpleguak eta enplegu sortu berriak bereizita eta jarduera-adar eta okupazio-talde nagusiak aintzat hartuta | ▪ Biztanleria aktiboaren zahartze-prozesuaren ondorioen urteko txosten bat egitea, enplegu-saldo garbiei dagokienez: Bai | ▪ Ez da aplikatzen |
| Prospektiba kualitatiboko osagaiak garatzea, aurre-hartze kuantitatiboaren informazioa aberasteko; horretarako, gizarte-eragileen, produkzio-sektoreetako ordezkarien, instituzioen eta nazioarteko adituen partaidetza aktiboko ereduak hartuko dira oinarri. | ▪ Prospektibaren esparruko foroetan parte hartzea, gizarte-eragileekin eta produkzio-sektoreetako ordezakriekin: Bai (parte-hartzea 10 forotan) | ▪ Ez da aplikatzen |

## 9.3. JARDUERA-ILDOA, ENPLEGUARI LOTUTAKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK SAKONAGO EBALUATZEA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Empleguari lotutako zerbitzuen edo programen ebaluazioak egin daitezen sustatzea | ▪ Eusko Jaurlaritzak kudeaketa-eredu aurreratua Lanbiden ezartzen aurrera egitea, bai eta haren jarraipen-, kontrol- eta ebaluazio-sistema ere.<br>▪ Ebaluazio-ekimenak garatzen jarraitzea esparru hauetan:<br>– Enplegurako prestakuntza-programak, lehentasunez pertsona langabeei zuzenduak.<br>– Enpresei zuzendutako zerbitzu-programak.<br>– Unibertsitateko eta lanbide-prestakuntza arautuko programak.<br>– Laneko orientazioa.<br>– Enplegu-bulegoetan jasotako zerbitzuekiko asebetetzea.<br>– Enplegu Politikari buruzko Urteko Plana (EPUP).<br>▪ EVADES programa aplikatzen jarraitzea; horren bitartez Lanbideren jardunean eragiten duten faktoreak ebaluatzen dira.<br>▪ Airef (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea) erakundeak zehaztutako gomendioen eta jardunbide egokien jarraipena eta aplikazioa, haren Enpleguko Politika Aktiboen ebaluazio-txostenaren parte den aldetik. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Emaitzen ebaluazioa enplegu-programa eta -zerbitzu guztietara hedatzea | ▪ 10 programa eta zerbitzu ebaluatu dira<br>▪ Enplegu-bulegoen %100ean asebetetzearen ebaluazioa egin da | ▪ Ez da aplikatzen |
| Enplegu-programa eta -zerbitzu nagusien ebaluazioen emaitzak modu ulergarrian hedatzea | ▪ Egindako ebaluazioen hedapen orokorra: BAI. Intranetean argitaratu da | ▪ Ez da aplikatzen |
| 2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoaren esparruan, desgaitasuna dutenentzat, DSBEren onuradunentzat eta 45 urtetik gorakoentzat eginiko jardueren eraginaren ebaluazio espezifikoa sartzea | ▪ Desgaitasuna duten 10.145 pertsonek parte hartu dute 2019ko Enplegu Plan Operatiboaren jarduereta<br>▪ DSBE jasotzen duten 37.874 pertsonek parte hartu dute 2019ko Enplegu Plan Operatiboaren jarduereta<br>▪ 45 urte baino gehiago dituzten 52.705 pertsonek parte hartu dute 2019ko Enplegu Plan Operatiboaren jarduereta<br>(Oharra: Zerbitzuren bat jaso duten edo Lanbideren laguntza-ildoren batean parte hartu duten pertsonak zenbatu dira) | ▪ Ez da aplikatzen |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
| --- | --- | --- |
| Enplegu-zerbitzuen Europako sareko kideek eta Enplegu Sistema Nazionaleko enplegu-zerbitzuek garatutako jardunbide egokiei eta programa pilotuei buruzko informazio-sistema bat definitzea Lanbiden | ▪ 2019ko jardunbide egokiei eta programa pilotuei buruzko informazio-sistemari eustea: Bai | ▪ Ez da aplikatzen |
| Lanbidek gauzatutako politika aktiboen barnean egindako jarduera guztien asebetetzea ebaluatzeko eta jarraipena egiteko sistema bat aplikatzea | ▪ Enplegu-politika aktiboetako jardueren %33 ebaluatu dira guztizko jarduera-kopuruarekiko | ▪ Ez da aplikatzen |

Zeharkako esparrua

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

## Zeharkako jarduera-ildoa: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

| Garatutako ekintzak | 2019ko elementu/lorpen garrantzitsuenak |
|---|---|
| Emakumeen enplegagarritasuna hobetzeko **ekintza positiboko irizpideak** sartzea enpleguari laguntzeko denetariko programetan. | ▪ Emakumeak kontratatzeko laguntza-ildo batzuen laguntzen zenbatekoa %10era arte handitzea; esate baterako hauetan: Lehen Aukera programa, gazteak itzultzeko programa, errelebo kontratuak edo desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko laguntza duen enplegu-programa. Bere aldetik, gizarte-ekonomiako enpresetan emakumeak bazkide moduan sartzeko laguntzen zenbatekoa %15 handitu da, bai eta luzaroan langabezian egon diren emakumeak kontratatzeko laguntzak ere.<br>▪ Emakumeen ekintzailetza sustatzea, laguntzak %15era arte handituz, ideia bat garatzeko, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko eta/edo sendotzeko, Ekintzaileei laguntzeko programaren esparruan; edo laguntzen zenbateko jakin bat bideratuz merkataritza ekintzailetzetarako, baldin eta titularrak emakumeak badira, eta gizarte-ekonomiako ekintzailetzarako.<br>▪ Emakumeak kontratatzeko %40ko kuota minimoaren baldintza ezartzea, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetan eta Desabantaila-egoeran dauden guneetako eta udalerrietako tokiko ekintzetan. Horren haritik, Gazte Enplegurako Programa Operatiboak ezartzen du gutxienez emakume batek parte hartu behar duela tokiko erakundeek gazteak kontratatzeko egin beharreko hautaketa-prozesu guztietan.<br>▪ Bestetik, deitutako Lan Eskaintza Publikoek ezartzen dute berdinketa hausteko irizpidetzat emakumeen alde egitea, emakumeen ordezkaritza %40tik beherakoa den kidegoetan edo eskaletan.<br>▪ Emakumeak enplegurako prestakuntza-ekintzetarako eta proiektu berezietarako lehentasunezko kolektibo bat direla aintzat hartzea, gutxienez lanik gabe dauden pertsona guztiekiko proportzio berean parte har dezaten.<br>▪ Landa-eremuetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko zenbait laguntza-programatan emakumeek aurkeztutako eskaerei buruzko balorazioa areagotzea, laguntzen zenbatekoa %15era arte handitzeko aukera emanez.<br>▪ Emakumeen eta gizonen berdintasun-plan bat egotea eta Emakunderen lankidetza-erakunde izatea nabarmentzea, tokiko garapeneko zenbait eremutan; esate baterako, turismoan eta merkataritzan. Horietan, baldintza horietako batzuk betetzen dituzten enpresek enpresa modernizatzeko eta hobetzeko laguntzak eskatzen badituzte, 3 puntuko (100en gainean) handitzea lortuko dute beren eskaeren balorazioan. |

| 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2019/12/31n | 2019rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez kontratatutako pertsonen % 40, gutxienez, emakumeak izan daitezela bermatzea | ▪ 1.443 emakume kontratatu dira Tokiko Enplegu Planen bitartez<br>▪ Tokiko Enplegu Planen bitartez kontratutakoen %56 emakumeak izan dira | ▪ Helburua aurreikusitakoaren gainetik bete da (%40 gainetik) |
| Ekintza positiboa indartzea, gutxienez %10 areagotuz kontratazioa sustatzeko eta ekintzaileta babesteko programa jakin batzuetako dirulaguntzak | ▪ 2.321 emakume kontratatu dira ekintza positiboko neurriak dituzten kontratazziorako pizgarri-programen bitartez (145 Lehen Aukera programakoak + 5 gazteak itzultzeko programakoak + 31 errelebo-kontratukoak + 7 emakume luzaroan langabe egon direnak + 1.443 Tokiko Enplegu Planetakoak + 549 desabantaila-egoeran dauden eremu eta udalerrietako tokiko ekintzakoak + 111 gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko programakoak + 30 desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko enplegu-programakoak) (estimazioa)<br>▪ Enpresa berrien %54 ekintzailetzari laguntzeko programen bidez sortu dira, eta emakumeak buru dituzten ekintza positiboko neurriak dituzte | ▪ Ez da aplikatzen |



PLAN ESTRATÉGICO
DE **EMPLEO** 2017-2020

# 6- Genero- eta adin-ikuspegia

# Genero-ikuspegia

2018ko Urteko Plan Operatiboan aurreikusitako jarduera-ildoen garapen-maila aztertuta, ondorioztatzen da **ekimenen multzoaren batez besteko inpaktu orokorra antzekoa izan dela gizonen (%51) eta emakumeen (%49) artean,** eta joera desberdinak hautematen direla zenbait eremutan edo jardueratan: batzuetan gizonak dira nagusi (adibidez, enpleguari laguntza ematea landa-eremuan eta kostaldean edo gizarte-ekonomian) eta beste batzuetan, emakumeak (adibidez, familia eta lana uztartzeko laguntzak).



Kontuan hartu behar da genero-ikuspegiaren azterketa berariaz pertsonei zuzendutako ekintzetan oinarritzen dela (adibidez, bekak, kontrataziorako zuzeneko laguntzak, enplegu babestuaren laguntzak, prestakuntza-ekintzak eta ekintzailetza-ekintzak), sexuka bereizitako datuen benetako eskuragarritasuna kontuan hartuta.

Eremu operatiboen araberako emaitzen ikuspegitik, **gizonen artean autoenplegurako eta mikroekintzailetzarako joera pixka bat handiagoa (%54)** hauteman da, zenbait programatan islatu dena; esate baterako, Ekintzaileei Laguntzeko Programa, Gaztenpres edo beste eragile batzuekin lankidetzan jarduteko laguntza-ildoak (adibidez, Dema programa). Joera hori areagotu egiten da gizarte-ekintzailetzetan; haietan, gizonen parte-hartzailea da handiena (%62).

**Enplegu gaztearen** esparruan, **gizonen eta emakumeen presentzia orekatuta dago orokorrean** jarduera-ildoetan, eta emakumeen presentzia handiagoa dela hauteman da zenbait programatan –esate baterako, unibertsitatearen esparruan hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programa (%66)–, nazioarteko mugikortasuneko programa batzuetan –esate baterako, Erasmus bekak (%59)– edo atzerriko esperientzia-programetan –esate baterako, Global Training Bekak (%60)–. Gazteak kontratatzeko pizgarriei dagokienez, Lehen Aukera eta errelebo-kontratuari laguntzeko programetan gizonen parte-hartzea izan da handiena (%76 eta %68 hurrenez hurren), emakumeak kontratatzeko ekintza positiboko neurriak egon arren. Gazteen itzulera errazteko programan ere hautematen da joera hori (%58 gizonak).

**Enplegurako prestakuntzari** dagokionez, **gizonen presentzia pixka bat handiagoa da** (%53) **langabeei zuzendutako ekintzen** kasuan, eta landunei zuzendutako ekintzen kasuan, berriz, emakumeen parte-hartzea pixka bat handiagoa da (%54). Kontratatzeko konpromisodun prestakuntza-ekintzetan, halaber, emakumeen parte-hartzea handiagoa da (%54). Joera hori alderantzizkoa da konpetentzia profesionalen akreditazioan, gizonen presentzia handiagoa baita (%68).

Laneratzeko eta gizarterako zailtasun handienak dituen kolektiboaren laneratzea eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza-ekintzei dagokienez, **emakumeen presentzia handiagoa da (%56) eragin nabarmena duten programetan, Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planetan, esate baterako**. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da programa horrek gutxieneko eskakizun bat ezartzen duela, kontratatutako pertsona guztien %40 emakumeak izan daitezen. Enpresetan lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzeko kontratazioetan, emakumeen presentzia handiagoa da (%84). Parte-hartzea orekatuagoa da luzaroan langabezian egondakoak kontratatzen laguntzeko ekintzetan (%47 emakumeak) eta prestakuntza-ekintzak eta lan-aktibazioa konbinatzen dituzten proiektu berezietan (%44 emakumeak).

Bere aldetik, **desgaitasuna duten pertsonak edo bazterketa-arriskuan daudenak gaitzeko** laguntza-programetan, **gizonen parte-hartzea handiagoa da (%62)**. Joera hori are handiagoa da Enplegu Zentro Berezietan; izan ere, emakumeen presentzia txikia da (%35).

# Adin-ikuspegia

Adin-ikuspegiari **modu integralean ekiten zaio 2019ko Jarduera Plan Operatiboan, eremuen eta programen arabera,** eta **laguntza espezifikoak dituzten kolektibo handien neurriak** zehazten dira; gazteei eta 45 urtetik gorako pertsonek osatzen dituzte kolektibo horiek.

Hala, **gazteek** beren eremu operatiboa dute **“3. Eremu Operatiboa. Gazteen Enplegua Sustatzea”** Planean aurreikusitako 9 eremuen artean. Eremu horretan gazteei enplegua lortzen laguntzeko jarduera-ildoak definitzen dira, zenbait laguntza-programa baliatuz. Programa horietan, gazteak **kontratatzeko pizgarri espezifikoak** sartu dira, hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzen laguntzeko, beren titulazioarekin lotutako enpleguetan lehen lan-aukera bat eskainiz, enpresetan edo administrazio publikoan errelebo bidezko ordezkapenak sustatuz, enplegua sustatzeko tokiko proiektuetan eta tokiko erakundeen beste proiektu batzuetan parte hartuz, 2014-2020ko Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan eta beren lan-esperientzia Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo garatu duten gazteen itzulerako programaren esparruan.

Modu berean, gazteen **kualifikazioa eta gaikuntza** sustatu dira, atzerriko esperientzia-programen bitartez, eta enpleguko eta prestakuntzako prestakuntza-ekintza eta -ekimen mistoen bitartez; esate baterako, unibertsitateko eta lanbide-heziketako esparruko prestakuntza dualaren eredua. Bestetik, kualifikazio apala duten gazteen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintza espezifikoak abian jarri dira, eta beste eragile batzuekin lankidetza-hitzarmenak egin dira (Novia Salcedo Fundazioa eta Unibertsitateak), laneratzen lagunduko dieten ekintza berritzaileak garatzeko eta laguntza emateko.

Ekintzailetzaren kultura eta **gazte ekintzailetza** ere berariaz sustatzen dira, unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren esparrua hartuz, eta ideia berriak garatzen eta abian jartzen lagunduz, eta gazte ekintzailetza berriei sendotzen lagunduz. Bestetik, tokiko garapenaren eremu operatiboarekin lotutako programa batzuek berariaz laguntzen diote gazte ekintzailetzari, landa-eremuan eta kostaldean esperientzia praktikoa eskuratzeari edo sektoreen profesionalizazioari (esate baterako, merkataritza), gazteak kualifikatzeko ekintza espezifikoen bitartez.

**45 urtetik gorako pertsonei dagokienez**, lehentasunezko kolektibotzat hartu da, batik bat **prestakuntza-ekintzen, lan-merkatuan txertatzeko aholkularitzako eta laguntzako ekintza integralen, eta tokiko proiektuetan kontratatzeko pizgarrien bitartez beren enplegagarritasuna hobetzera** zuzendutako denetariko jardueretan. Jarduera horietan, langabeak birkualifikatzera bideratutako prestakuntza-ekintzak sartu dira, lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazioekin eta konpetentziekin lotuta; prestakuntzako eta lan-aktibazioko ekintza berritzaile integralak (proiektu bereziak); edo langabeen zeharkako konpetentziak eta konpetentzia pertsonalak, enplegu-anezken bitartez, esate baterako.

Kontrataziorako pizgarrien esparruan, 45 urtetik gorako pertsonen kontratazioa sustatu da, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen esparruan, eta lehentasunezko kolektibo onuradunetako bat da. Gainera, abian jarri dira **kolektibo horren kontratazioari laguntzeko neurri espezifikoak, errelebo-kontratuen bidez eta langabezian luzaro egon direnak kontratatzeko laguntzaren bidez.**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PLAN ESTRATÉGICO
DE **EMPLEO** 2017-2020

# 7- Testuinguru-adierazle orokorrak

# BIZTANLERIAREN ADIERAZLE OROKORRAK

| ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK | ABIAPUNTUKO EGOERA (2016) | 2017ko EGOERA | 2018ko EGOERA | 2019ko EGOERA | DATA ETA ITURRIA | 2019-2016 GARAPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BPGren urteko hazkundea (%) | %3,1 | %2,9 | %2,8 | %2,1 | 2015-2016; 2016-2017; 2017-2018; 2018-2019 urte artekoak. Eustat | ▼ |
| Enpresa-establezimenduen saldo garbia (altak - bajak) | -710 | -281 | -1.544 | 922 | 2015-2016; 2016-2017; 2017-2018; 2018-2019 urte artekoak (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat | ▲ |
| Sortutako enpresa-establezimenduen kopurua | 16.045 | 15.015 | 13.550 | 16.472 | 2016; 2017; 2018; 2019 (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat | ▲ |
| Esportazioen urteko bolumena (milioi €-tan) | 21.596 | 23.857 | 25.487 | 25.397 | 2016; 2017; 2018, 2019. Eustat | ▲ |
| BPGren gaineko I+Gko gastua (%) | %1,84 | %1,82 | %1,85 | %1,85 (behin-behineko datua) | 2015; 2016; 2017; 2018. Eustat | ▲ |
| **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-MERKATUAREN ADIERAZLEAK** | **ABIAPUNTUKO EGOERA (2016)** | **2017ko EGOERA** | **2018ko EGOERA** | **2019ko EGOERA** | **DATA ETA ITURRIA** | **2019-2016 GARAPENA** |
| Biztanleria aktiboa (milaka pertsona, BJA) | 1.032,3 | 1.033,1 | 1.044,7 | 1.042,6 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Enplegu-tasa, 16 urtekoak eta gehiagokoak (%, BJA) | %56,4 | %56,2 | %56,6 | %56,3 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▼ |
| Landunak (milaka, BJA) | 902,8 | 918,3 | 937,4 | 945,5 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Gizarte Segurantzan izena emandako pertsonak (milaka pertsona; hileko batezbestekoa) | 925,3 | 943,98 | 962,1 | 980,6 | 2016; 2017; 2018; 2019ko abendua (hileko batezbestekoa). Gizarte Segurantza | ▲ |
| Enplegu-tasa, 16 - 64 urte (%, BJA) | %65,9 | %66,5 | %68 | %68,6 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Pertsona langabeak (milaka pertsona, BJA) | 130,1 | 114,8 | 107,3 | 97,1 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Langabezia-tasa (%, BJA) | %12,6 | %11,2 | %10,3 | %9,3 | 2016ko IV. hiruhilekoa; 2017; 2018, 2019. Eustat | ▲ |
|  |  |  |  |  |  |  |

| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-MERKATUAREN ADIERAZLEAK | ABIAPUNTUKO EGOERA (2016) | 2017ko EGOERA | 2018ko EGOERA | 2019ko EGOERA | DATA ETA ITURRIA | 2019-2016 GARAPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erregistratutako langabezia (milaka pertsona, Lanbide) | 136 2 | 127,5 | 119,7 | 114,1 | 2016; 2017; 2018, 2019ko abendua. Lanbide | ▲ |
| EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira) | 6.283 | 4.342 | 3.187 | 2.449 | Urteko datu metatuak: 2016; 2017; 2018; 2019. Laneko departamentua | ▲ |
| Hutsaltze EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira) | 638 | 997 | 533 | 297 | Urteko datu metatuak: 2016; 2017; 2018; 2019. Laneko departamentua | ▲ |
| Baimendutako eta/edo jakinarazitako EEE-en kopurua (guztira) | 446 | 266 | 187 | 173 | Urteko datu metatuak: 2016; 2017; 2018; 2019. Laneko departamentua | ▲ |
| Jarduera-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (%, BJA) | -9,50 | -9,40 | -9,6 | -9,2 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Langabezia-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (%, BJA) | 0,06 | 0,05 | 0,04 | 1,7 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▼ |
| Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka) | 34,6 | 30,67 | 28,91 | 28,28 | 2016; 2017; 2018, 2019ko abendua. Lanbide | ▲ |
| Luzaroan langabe egon direnak (25 urtetik gorakoak, urtebete edo gehiago langabezian daramatenak, eta 25 urtetik beherakoak, 6 hilabete edo gehiago langabezian daramatenak), Lanbide enplegu-eskatzaileak direnak (milaka) | 72,5 | 67,5 | 61,1 | 55,3 | 2016; 2017; 2018, 2019ko abendua. Lanbide | ▲ |
| Aldi baterako kontratazioaren tasa (%, BAI) | %23,4 | %26,1 | %26,5 | %24 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. EIN | ▼ |
| Lanaldi partzialeko kontratazioaren tasa (%, BAI) | %17,7 | %16,8 | %16,4 | %17,5 | 2016; 2017; 2018, 2019ko IV. hiruhilekoa. EIN | ▲ |
| Lanaldian baja eragiten duten lan-istripuen eragin-indizea (milaka) | 2,8 | 2,8 | 2,6 | 2,7 | 2016; 2017; 2018, 2019ko abendua (hileko indizea). Osalan | ▲ |





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PLAN ESTRATÉGICO
DE EMPLEO 2017-2020

# 8- Ondorioak eta balorazio orokorra

# Ondorioak eta balorazio orokorra

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa 2020ko EEEn (Enpleguaren Euskal Estrategia) finkatutako jarraibideen formulazio estrategikoa zehaztera bideratutako plan estrategiko moduan diseinatu zen, eta aldi berean Eusko Jaurlaritzaren sailetan enplegua sustatzearekin lotutako zerbitzuak eta programak koordinatzeko tresna moduan. Hori guztia enpleguari buruzko ikuspegi zabala izanda, eta lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren dimentsioekin lotutako alderdiak kontuan hartuta. Bestetik, Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020ko Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren 2 ardatzetako bat da, suspertze ekonomikoaren dimentsioarekin batera.

Maila operatiboan, Enplegu Plan Estrategikoak **Urteko Ekintza Planak ditu 2018, 2019 eta 2020 urteetarako, eta beraz, 2019ko Urteko Plan Operatiboa bigarrena da**, eta urteko helburu espezifikoak ditu.

Plana abian jartzeko aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura 1.175 M €-koa da 2017-2020 aldirako, eta horietatik 307 M € onartu ziren 2019ko aurrekontuetan. **Planean 2019rako aurreikusitako jarduera-ildoen garapenaren emaitza 328 M €-ko aurrekontu-exekuzioa izan da**; hau da, **2019rako aurreikusitako aurrekontuaren %107. 2017, 2018 eta 2019an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan hartuta (902 M €), aurrekontuen exekuzioa 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako aurrekontuaren %77 izango litzateke.** Esparru operatibo guztiek aurrekontuen exekuzio-maila handia islatzen dute 2019an. Enpleguaren Urteko Plan Operatiboan 2020rako aurreikusitako baliabide ekonomikoak kontuan hartuta (355 M €), 2017-2020 Enplegu Planaren estimatutako exekuzio metatuak Plan osorako aurreikusitako baliabide ekonomikoak lortuko eta gaindituko lituzke.

Emaitza kuantitatiboen ikuspegitik, Planak lan-merkatuan inpaktu orokor hau estimatu zuen: 58.000 lanpostutarako pizgarriak ematea, 6.000 enpresa berri sortzea eta 20.000 gazteri lan-aukera bat ematea. 2019an zehar garatutako jarduerak, alde batetik, hauek izan dira: **23.775 lanpostutarako pizgarriak ematea eta 2.086 enpresa sortzea. Emaitza horiek eta 2017an eta 2018an lortutakoek (34.143 enplegu sustatuta eta 3.527 enpresa sortuta) erakusten dutenez, 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako enplegu sustatuen ia %100 (57.918) eta aurreikusitako enpresa berrien %94 (5.613) lortu dira**. 2020rako aurreikusitako emaitzen estimazio bat eginez, helburuak %100 baino gehiago beteko direla aurreikusten da, sustatuko enpleguari eta sortutako enpresa berriei dagokienez.

Enplegu gazteari dagokionez, **10.693 gaztek izan dute lan egiteko aukera 2019an zenbait programaren bidez:** besteak beste, enpresetan eta toki erakundeetan kontratuak izateko aukera, beren tituluekin zerikusia duten lanpostuetan; gazteen ekintzailetza; hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko lehen esperientzia; nazioartean esperientzia praktikoa lortzeko bekak; eta plantillak berritzea, lan-eskaintza publikoaren eta txanda-kontratuen bidez. **Emaitza horiek eta 2017an eta 2018an lortutakoek (17.115 gazte) erakusten dutenez, 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuen %139 (27.808 gazte) bete da**. 2020rako aurreikusitako emaitzen estimazio bat eginez, 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuaren ia bikoitza beteko litzateke.

Inpaktu-emaitza horiek Planean zehaztutako bi helburu estrategiko handietako bati erantzuten diote. Hirugarren helburua langabezia-tasa denboran zehar murriztea da, 2020ko azken hiruhilekoan %10etik beherakoa izan dadin. **Langabezia-tasaren balioa %9,3koa zen 2019ko azken hiruhilekoan**; horrek esan nahi du tasa hori 3,3 puntu txikitu dela abiapuntuko egoerarekin konparatuta (%12,6koa zen 2016ko IV. hiruhilekoan) eta 2020rako aurreikusitako azken helburua bete egin dela. 2020an zehar joera horri eusten zaiola estimatuz, aldi horretarako aurreikusitako helburua lortu eta hobetu egingo litzateke.

